Bizkaia beaz

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA, PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO KONTRATU BAT:

"BEAZek BIC Bizkaian kudeatzen duen fabrikazio eta manufaktura aurreratuko lantegiaren dinamizazio eta euskarri-zerbitzurako urgazpena"

EXPTE ZK.: 9/2022

KONTRATUAREN EZAUGARRIEN LABURPENA

A) Erakunde esleitzailea eta kontratatzailearen profila:

BEAZ, SAU
Sabino Arana etorbidea 8
48013 Bilbo-Bizkaia
Tel. 94 439 56 22 – Faxa 94 427 80 05
E-maila: maialen.intxausti@bizkaia.eus

Euskadiko kontratazio publikoko plataforma

B) Kontratuaren xedea:

Kontratu honen helburua BIC BIZKAIAn kokatuta dagoen Fabrikazio eta Manufaktura Aurreratuko Lantegia kudeatu, dinamizatu eta kontrolatzeko zerbitzua kontratatzea da.

C) Sortaka banatuta: Ez

D) Kontratu mota eta esleitzeko prozedura :

Araupetze harmonizatuaren mende EZ dagoen kontratua.

Ohiko izapideko prozedura irekia, esleitzeko zenbait irizpiderekin.

E) Lizitazio elektronikoko sistema

Nahitaez erabili behar da (Administrazio-klausula Partikularren Pleguko 2. atala).

F) Lizitazioko aurrekontua:

Zuzeneko kostuak	70.000,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €
Lizitazioko aurrekontua	70.000,00 €
BEZ %21:	14.700,00 €
GUZTIRA:	84.700,00 €
Zenbatetsitako balioa, BEZ kanpo (luzapenekin):	105.000,00 €

Esleipeneko baldintza ekonomikoak ez dira izango sektoreko hitzarmena ezartzearen ondoriozkoak baino txikiagoak, bereziki ordainketen eta plantillaren alorrean, horrela

ezarri egingo dela bermatu ahal izango baita.

G) Burutzeko epea

2 urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

H) Behin-behineko bermea:

Ez dago.

I) Behin betiko bermea:

Esleipenaren zenbatekoaren ehuneko bost (%5), BEZ kanpo.

J) Prezioen berrikuspena:

Ez dago.

K) Kaudimen teknikoa eta ekonomia-finantzazkoa eta gaitasun profesionala egiaztatzeko bideak:

Gainera, lizitazio honetan parte hartzeko, lizitatzaileek beren kaudimena egiaztatu beharko dute hurrengo kaudimen ekonomiko-finantzieroa eta teknikoa bidez:

a) Kaudimen ekonomiko-finantzieroa: (7. Eranskina)

b) Kaudimen teknikoa: (8. Eranskina) Aldi baterako Enpresen Elkarteak aurkeztutako eskaintzak direnean, alternatiba bezala metatu den kaudimena metatu ahalko da, beti ere kideetako bakoitzak, banaka, gutxienez, lehen azaldutako moduan %45eko kaudimen teknikoa egiaztatzen badu %70ekoaren ordez.

L) Agiriak lortu:

Euskadiko kontratazio publikoko plataforma

BEAZ, SAU
Sabino Arana etorbidea 8
48013 Bilbo-Bizkaia
Tel. 94 439 56 22 – Faxa 94 427 80 05
Emaila: maialen.intxausti@bizkaia.eus

M) Eskaintzak aurkezteko epea:

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira 2023ko urtarrilaren 5eko 14ak baino lehen,

BEAZen Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez.

N) Proposamenak aurkezteko tokia:

BEAZen lizitazio elektronikoko plataforma

O) Eskaintzak ireki:

Jakinaraziko da.

P) Esleitzeko irizpideak:

Atomatikoki kuantifika daitekeen irizpideak: (100 puntu)

- Balioztapen ekonomikoa: (100 puntu)

Balio-iritzien arabera kuantifika daitezkeen irizpideak: (100 puntu)

- Metodologia: (20 puntu)
- Lanaren planifikazioa: (20 puntu)
- Lantaldea: (40 puntu)
- Arduraldi-maila: (10 puntu)
- Segimendua: (10 puntu)

Q) Kontratistari eska dakizkiokeen beste gastuak:

Plegu honetako 5.2 klausulan zerrendatuak.

R) Beste zehaztapen batzuk:

Erantzukizunpeko adierazpena: Kontratu honetan Administrazio-klausula Partikularren Pleguan (AKPP) eskatutako agirien ordez erantzukizunpeko adierazpena egingo da (AKPPko 2. Eranskina) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 140. artikulua beteaz, horren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Burutzeko baldintza bereziak: (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 202. artikulua, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora); burutzeko baldintza bereziak dira Administrazio-klausula Partikularren Plegu honetako 5.4 klausulan jasotakoak, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11 ataletan, dagokionean Preskripzio Teknikoen Pleguan

ezarriko direnak eta ondorengoak:

Gizarte, lan eta ingurumen arloko araudia betetzea:

- Plantilla mugagabearen portzentaje bat erabiltzeko betebeharra: burutzeko baldintza berezietako bat da kontratua beteko duten langile guztien %25 gutxienez plantilla mugagabea izatea .

Familiako eta laneko bizitza uztar daitezela sustatzea:

- kontratua burutuko duten langileek laneko eta familiako bizitzak uztartzeko neurriak ezarriko ditu enpresa esleipendunak eta ondorengoetako batzuk izan daitezke:
    - Lanean sartu eta lanetik irteteko ordutegiaren malgutasuna, eta jatorduetako, kaferako... geldialdiena edo atsedenaldiena ere bai.
    - Pertsonen ohiko erritmoetara egokitu ordutegiak: laneko ordutegiak garraiokoetara, eskolakoetara, merkataritzakoetara... egokitu.
    - Ez ezarri bilerarik atsedeneko denbora mugetan.

Jarraipena:

Kontratuaren arduradunak egingo du jarraipena, kontratua esleitu eta izendapena egin ondoren.

Ez betetzeak eta zigorrak

Gizarte, lan eta ingurumen arloko araudia bete.

- Hitzarmenean aitortutako soldataren derrigorrezkotasuna.

  Puntu honetan ezarritakoa betetzen ez bada, arau-hauste larria izango da eta kontratuko zenbatekoaren %5eko zigorra izango du.

- Plantilla mugagabearen portzentaje bat erabiltzeko betebeharra, %25.

  Arau-hauste arina izango da portzentaje hau ehuneko 10 unitatetan ez betetzea, eta kontratuko zenbatekoaren %1eko zigorra izango du. Ez betetze hori ehuneko 10 unitate baino gehiagokoa izanez gero, arau-hauste larria izango da eta kontratuko zenbatekoan %5eko zigorra izango du.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko burutzapen-baldintza berezia

- Estereotipo sexistak saihesteko betebeharra.

  Puntu honetan ezarritakoa betetzen ez bada, arau-hauste larria izango da eta kontratuko zenbatekoaren %5eko zigorra izango du.

- Berdintasun-plana bete.

  Ez betetzea arau-hauste larria izango da eta kontratuko zenbatekoaren %5eko zigorra izango du.

Familiako eta laneko bizitza uztartzea sustatzeko burutzapen-baldintza berezia.

- Laneko eta familiako bizitza uztartzea erraztuko duten ekintzak sustatu.

  Puntu honetan ezarritakoa betetzen ez bada, arau-hauste larria izango da eta kontratuko zenbatekoaren %5eko zigorra izango du.

Indarrean dagoen hizkuntza-erregimenaren ondoriozko betebeharrak bete.

- Puntu honetarako ezarritakoa betetzen ez bada, arau-hauste larria izango da eta kontratuko zenbatekoaren %5eko zigorra izango du.

Kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik kenduko dira zigorrak, dela ordainketa osotik dela zatikako ordainketa kontzeptutik; ordainketatik kendu ezin denean, aldiz, dagokionean eratutako bermetik kenduko da.

Bizkaia beaz

AURKIBIDEA

1. XEDAPEN OROKORRAK 10
1.1. BEAZEN IZAERA 10
1.2. KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA 10
1.3. KONTRATUAREN XEDEA 11
1.3.1. LANEN IRISMENA 12
1.3.2. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA 12
1.4. KONTRATUAREN AURREKONTUA 12
1.4.1. LIZITAZIOKO AURREKONTUA 12
1.5. BURUTZEKO EPEA 13
1.6. EPEA ALDATU EZINBESTEKO KASUAGATIK 13
2. KONTRATUAREN ESLEIPEN-ERREGIMENA 14
2.1. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOA ETA ESLEIPENAREN FORMA 14
2.1.1. PROZEDURAN ERABILTZEKO KOMUNIKABIDEAK 14
2.2. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FORMAK 15
2.2.1. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA 16
2.3. PROPOSAMENEN EDUKIA 17
2.3.1. "A" GUTUN-AZALA: AGIRI OROKORRAK 18
2.3.1.1. ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEAK 21
2.3.1.2. ATZERRIKO ENPRESAK 22
2.3.2. "B" GUTUN-AZALA: AGIRI TEKNIKOAK 23
2.3.3. "C" GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA 24
2.4. PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTU 24
2.5. ESKAINTZEN BALORAZIOA 25
2.5.1. PROZEDURAREN BEREZITASUNAK 25
2.5.2. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK 26
2.5.2.1. ESKAINTZA TEKNIKOAREN BALORAZIOA 26
2.5.2.2. ESKAINTZA EKONOMIKOEN BALORAZIOA 27
2.5.3. ESKAINTZA EZOHIKO BAXUAK 29
2.5.4. ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ESLEIPEN-PROPOSAMENA 30
2.6. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA 31
2.7. LIZITAZIOKO AGIRI TEKNIKOEN ESKURAGARRITASUNA 32
2.8. EPEAK 32
3. KONTRATUA FORMALIZATU 32
3.1. BEHIN BETIKO BERMEA 32
3.2. KONTRATUA FORMALIZATU 33
4. BEAZ ETA KONTRATISTAREN ARTEKO HARREMANAK 33
5. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 33
5.1. KONTRATISTARI ORDAINKETAK 33
5.2. KONTRATISTARI ESKA DAKIZKIOKEEN GASTUAK 34
5.3. PREZIOEN BERRIKUSPENA 35
5.4. LANGILEAK ETA LAN, GIZARTE ETA INGURUMEN ARLOKO BETEBEHARRAK 35

5.5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA 39
5.6. EPEAK BETE 39
5.7. EMAITZEN BABES ETA USTIAPENA 39
5.8. DATU PERTSONALEN BABESA 40
5.9. BESTE BETEBEHAR BATZUK 41
6. KONTRATUA LAGA 41
7. ZIGORREN ERREGIMENA 42
8. AZPIKONTRATAZIOA 47
9. ASEGURUAK 48
10. KONTRATUAREN AMAIERA 50
10.1. KONTRATUA ETEN ETA BERMEA ITZULI 50
10.2. ETETEAREN ONDORIOAK 52
10.3. ALDE BATEK UKO EGITEA 52
11. ESKUMENDUN JURISDIKZIOA 53

ERANSKINAK:

1. ERANSKINA. Proposamena
2. ERANSKINA. Enpresa lizitatzailearen identifikazio-datuen erantzukizunpeko adierazpena
3. ERANSKINA. Sailkapen baliozkotze ziurtagiria
4. ERANSKINA. . Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena
5. ERANSKINA. Informazio konfidentzialari buruzko aitorpenaren eredua
6. ERANSKINA. Aldi baterako Enpresen Elkarteak eredua
7. ERANSKINA. Kaudimen ekonomiko-finantzieroen eredua
8. ERANSKINA. Kaudimen teknikoen eredua

1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. BEAZen izaera

BEAZ, SAU (aurrerantzean, "BEAZ") Bizkaiko Foru Aldundiaren pertsona bakarreko sozietate publikoa da eta izaera mugagabea du. 1987ko maiatzaren 25an eratu zen Bilboko Elkargoko José Jesús del Arenal y Martínez de Bedoya notarioak baimendutako eskritura bidez 2.441 protokolo-zenbakiarekin eta bere xedea da enpresen eta berrikuntzaren zentro bat jartzea abian Bizkaian.

BEAZ sozietate publikoa da eta horren ondorioz, sozietate horientzako ezarritako arauen mende dago; arau horiek ezarri daitekeen Tokiko Erregimenari buruzko legedi orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko foru xedapenetan ezarri dira horrelako sozietateentzat. Sozietatearen egoitza Bilbon dago, Kale Nagusiko 25. zenbakian, eta bere gizarte egoitza Sabino Arana etorbideko 8. zenbakian du.

Bere gizarte-xedearekin bat etorriz, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapen Saileko erakunde lankidea da BEAZ eta bere xedea da enpresen lehiakortasuna sustatu, garatu eta bultzatzeko behar diren jarduerak egitea, kalitatezko lanpostuak sortzeko eta mantentzeko eta, oro har, Bizkaia lurralde berritzailea, sortzailea, dinamikoa eta ekintzailea izateko, non lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa izango diren Bizkaiko gizartearen egungo eta etorkizuneko ongizatearen berme.

1.2. Kontratuaren erregimen juridikoa

Kontratua EZ dago araupetze harmonizatuaren mende eta honakoek arautuko dute:

- Administrazio-klausula Partikularren Pliegu honetako klausulek eta bere karatulako berezitasunek, baita preskripzio teknikoen pleguak ere.
- Plegu honen eta kontratuko gainerako edozein agiriren artean bat ez etortzeak egonez gero, Klausulen Pliegu hau gailenduko da, bertan baitaude kontratuko aldeen eskubideak eta betebeharrak.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean SPKL).

- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 13ko 33/2018 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea onartzen duena.
- Abenduaren 30eko 8/2021 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2022rako Aurrekontu Orokorrena.

Administrazio-klausula Partikularren Plegu honek, bere karatulak eta eranskinek, Preskripzio Teknikoen Pleguak eta gero ondorioztatuko den kontratu-agiriak, kontratu izaera dute.

Plegu honetan eta ezarri daitekeen legedian aurreikusitakoaren arabera, lizitatzaileek edota esleipendunek BEAZi zuzendutako komunikazioek eta eskariek ondorioak izateko, ofizialki igorriko dira eta une horretatik aurrera izango dituzte ondorioak; eta horretarako, BEAZen erregistro ofizialean aurkeztu beharko dira. BEAZeko sarrera-erregistroko data izango da, ondorio guztietarako, jakinarazpenaren data.

1.3. Kontratuaren xedea

Kontratu honen helburua BIC BIZKAIAn kokatuta dagoen Fabrikazio eta Manufaktura Aurreratuko Lantegia kudeatu, dinamizatu eta kontrolatzeko zerbitzua kontratatzea da, egokiro funtziona dezan eta BIC Bizkaian kokatuta dauden enpresa guztiei emandako zerbitzu, euskarri eta aholkularitzaren kalitatea bermatzeko, arlo horretako beharrizanei dagokienez. Era berean, arlo honetako beharrei dagokienez, hainbat ekimen eta proiektu sustatu, bultzatu eta bultzatu.

1.3.1 Lanen irismena

Kontratu honen xede diren zerbitzuak Preskripzio Teknikoen Pleguan zehaztura mugatzen dira.

1.3.2. Kontratuaren beharra eta egokitasuna

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 28. artikuluan aurreikusitakoaren

ondorioetarako, kontratu honen bidez estali nahi diren beharren izaera eta hedapena, eta horiek estaltzeko xedearen eta edukiaren egokitasuna, behar bezala zehaztu dira bere prestaketa-agirietan eta preskripzio tekniko partikularren pleguan jasotako ezaugarri eta kalitatearekin.

1.4. Kontratuaren aurrekontua

1.4.1. Lizitazioko aurrekontua

Lizitazioko aurrekontu honen arabera aurkeztu behar da eskaintza:

Zuzeneko kostuak	70.000,00 €
- Eskulana	70.000,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €
Lizitazioko aurrekontua:	70.000,00 €
BEZ %21:	14.700,00 €
GUZTIRA:	84.700,00 €
Zenbatetsitako balioa, BEZ kanpo (luzapenarekin barne):	105.000,00 €

Ondorio guztietarako, kontratuaren prezioan sartuta egongo dira BEZa, prestazioa eskaintzeko egin behar diren gastu guztiak eta ezarri daitezkeen gainerako zergak, baita Plegu honen arabera esleipendunaren gain doazen gastu guztiak ere.

Aurkeztuko diren proposamen ekonomikoek ezingo dute zenbateko hori gainditu.

Dena dela, esleipendunak hitza ematen du kontratuaren xede osoa burutuko duela esleipeneko prezioan.

1.5. Burutzeko epea

Esleipendun enpresak 2 urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

1.6. Epea aldatu ezinbesteko kausagatik

Kontratistak kontratuko epea aldatzeko eskubidea izango luke, aurrez ezarritako epea ez balitz beteko aurreikusi ezin diren edo saihestezinak diren kausengatik,

Kode Zibileko 1.105 artikuluan definitzen den bezala. Horretarako, baldintza hauek beharko dira:

- Ezinbesteko kausa horiek ez daitezela izan kontratistaren edo berak azpikontratatuen ez betetzearen, omisioaren edo zabarkeriaren ondoriozkoak.
- Kontratistak berariaz jakinarazi dezala ezinbesteko kausa hori, gertatu zenetik gehienez ere 48 orduko epean. Jakinarazpena idatziz egin beharko da eta BEAZen erregistroan sarrera eman beharko zaio.
- Kontratistak ahal duen bezain laster jarriko ditu abian eta jarraitu egingo du ezinbesteko kausa horren ondorioak minimizatzeko ahalegin guztiak, batez ere obretako atzerapenak arindu eta horiek kalteak txikitzekoak.

Ezinbesteko kausengatiko atzerapena egon bada, Kontratu honetan hitzartutako epeek (bankuetako edo kontratuzko bermeenak barne, izaera mugatzailerik gabe) ezinbesteko kausa indarrean egon zen epe berdineko luzapena izango dute; baina normaltasunera ezin izan bada itzuli lanak hasi eta berehala, behar den adina luzatuko da epe hori (beti ere arrazoizko epe baten barruan) eta aurrez adostuta izango dute kontratistak eta BEAZek zenbatekoa izango den luzapen hori. Dena dela, gorabeherek erasan gabeko betebeharrak bete egin beharko dira.

Ezinbesteko kausagatik egondako gainkostu guztiak kontratistaren gain joango dira, hau da, inoiz ere ez da kontratuaren zenbatekoa aldatuko, arrazoi honen ondorioz.

2. KONTRATUAREN ESLEIPEN ERREGIMENA

2.1. Espedientearen tramitazioa eta esleipenaren forma

Tramitazio elektronikoko prozedura bat da. Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, tramitazio arruntarekin, EZ da araupetze harmonizatuaren mende egongo, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko (SPKL) 156. artikulutik 158ra aurreikusitakoaren arabera.

Kalitate-prezio harremanik hobereneko eskaintza hautatzeko, aurkeztutako eskaintza guztiak baloratuko dira hainbat irizpideren arabera eta irizpide horiek guztiak kontratuaren xedeari lotuta egongo dira SPKLko 146.2 artikuluan aurreikusiaren arabera.

Kontratazio-organoak enpresa lizitatzaileei tratamendu berdina emango die eta ez bereizlea; era berean, gardentasun printzipiora egokituko da bere jarduna.

2.1.1. Kontratazio-prozeduran erabiltzeko komunikabideak

SPKLko 140.1.4 artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio-prozeduran egingo diren komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira ("gaitutako" helbide elektroniko bidez edo agerraldi elektroniko bidez), lizitatzaileak bere erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

Lizitatzaileek pleguei eta agiri osagarriei buruzko informazio gehigarria eska dezakete, lizitazioaren iragarkian eskaintzak hartzeko finkatutako epemuga baino 5 egun lehenago. Kontsulta horiek helbide elektroniko honetan egin beharko dira: maialen.intxausti@bizkaia.eus

Kontratua esleitzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita.

2.2. Proposamenak aurkezteko modua

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira, BEAZen lizitazio elektronikoko plataformaren bidez. Lizitazio elektronikoko datuak deskargatzeko web helbidea hau da:
https://apps.bizkaia.eus/sede-lantik/licitacion/solicitud?numexpediente=BEA9/2022
Elektronikoki lizitatu ahal izateko, lizitatzaileak aurrez deskargatu beharko du eskaintzak aurkezteko aplikazioa
http://apps.bizkaia.eus/sobresjnlp/webstart/aplicacionOfertas.jnlp

Aplikazio honen gaztelaniazko eta euskarazko eskuliburuak:

http://apps.bizkaia.eus/sede-lantik/resources/manual_beaz_ca.pdf

http://apps.bizkaia.eus/sede-lantik/resources/manual_beaz_eu.pdf

Lizitazio elektronikoko plataforman sartzeko, lizitatzaileak aitortutako edo kualifikatutako ziurtagiri elektronikoa behar du, Bizkaiko Foru Aldundiak onartua.

https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/certificadosEnt

Espedienteko eskaintzak deskargatzeko helbidea hau da:

https://apps.bizkaia.eus/sede-lantik/licitacion/solicitud?numexpediente= + NumExpediente

Eskaintza elektroniko bati eransten zaion banako fitxategi bakoitza gehienez ere 75

MB eta 200 MB artean egongo da eskaintza osoa.

Plataformak ez du mugarik ezartzen eskaintza batean atxiki daitekeen artxibo kopuruan.

Eskaintza baten aurkezpenean atxiki daitezkeen agirientzat onartutako formatuak hauek dira:

- .doc .docx : Microsoft Wordeko testu natiboen formatuak.
- .xls .xlsx : Microsoft Exceleko kalkulu-orri natiboen formatuak.
- .ppt .pptx : Microsoft PowerPointeko aurkezpen-natiboen formatua.
- .rtf : Testu estandarreko formatuak:
- .sxw : Star Office testu natiboko formatua.
- .abw : Aviword testu natiboko formatua.
- .pdf : Adobe Acrobateko dokumental natiboko formatua.
- .jpg : Formatu grafikoa.
- .bmp: Microsoft Windowseko grafiko natiboko formatua.
- .tiff .tif : Formatu grafikoa.
- .odt : OpentDocument testuko formatua.
- .ods : OpentDocument kalkulu-orriko formatua
- .odp : OpentDocument aurkezpen formatua.
- .odi : OpentDocument irudiaren formatua.
- .zip : Winzipen konprimatutako formatu natiboa eta Microsoft Windowsek jasandakoa.
- .dwg : AutoCAD marrazkiko formatua.

Beste formatu batzuetan dauden artxiboak atxikitzeko, artxibo konprimatu batean bildu daitezke (ZIP batean), alternatiba gisa.

Lizitatzaileen ardura da eskaintzak birusik gabe egotea.

Dena dela, birusa egoteak ez du esan nahi eskaintza kanpoan geratuko denik, bere edukira sartzeko modua egonez gero.

Kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan izan eta BEAZeko kontratazio-mahaiak erabakiko du horri buruz.

2.2.1. Proposamenak aurkezteko epea

Eskaintzak irailaren 2ra arte, egunean 24 orduz eta asteko 7 egunetan, aurkeztu daitezke, 2023ko urtarrilaren 5eko 12ak baino lehen. Eskaintza aurkeztu den data eta ordua BEAZen erregistro elektronikoak igorritako frogagirian ageri direnak izango dira eta eskaintza aurkezten amaitzen den unearekin bat etorriko da.

Eskaintzak bitarteko elektronikoz bidaltzean aldi batean edo bi fasetan egin daiteke; bi fasetan egitea erabakiz gero, lehenengo eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa bidaliko da, eta hori hartzean aurkezpena ondorio guztiekin egin dela esan nahiko du; ondoren, eta gehienez ere 24 orduko epean, eskaintza bera aurkeztu beharko da. Bigarren fase hau adierazitako epean betetzen ez bada, eskaintza erretiratu egin dela esan nahiko du.

Eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa esatean, datu multzo batez ari gara eta datu horiek sortzeko prozesuari esker, zalantzarik gabe lotzen dira datuok eskaintzaren edukiarekin; ondorioz, honen edukian egon daitezkeen balizko gorabeherak hauteman daitezke eta bere osotasuna bermatu, aukera baitago lizitatzaileak bidali duenetik bere edukia ez dela aldatu egiaztatzeko.

Lizitatzaileek eskaintzak bi fasetan aurkeztea erabakiz gero, bere neurriaren ondorioz bidaltzeko arazoak egon daitezkeela uste dutelako, sarera konektatzeko arazoak daudelako... Eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretik bidali beharko dute beren eskaintzaren "hash" aztarna. Hala eginez gero, 24 ordu izango dituzte eskaintza osatzeko, eta maialen.intxausti@bizkaia.eus helbide elektronikora "hash" aztarna elektronikoa bidaltzen denean hasiko da kontatzen epe hori; beti ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretik bidali bada aztarna elektroniko hori.

Lizitatzaileek beren eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa transkribatuta (**irudia ez**) bidali beharko dute helbide elektroniko honetara, maialen.intxausti@bizkaia.eus, eta dagokien espediente-zenbakia adierazi beharko dute lizitatzailearen identifikazio-datuekin batera, kontratazio-mahaiak egiazta dezan aztarna digital hori aurkeztutako eskaintzaren aztarnarekin bat datorrela, behin eskaintza bidalitakoan.

Eskaintza baten edukian sartzerik ez badago, artxiboa kaltetuta dagoelako, lizitatzailearen ekipoak automatikoki sortutako tokiko kopiara jo daiteke, eta egiaztatu egin beharko da eskaintzaren aztarna digitala bat datorrela kontratazio-organoaren esku dagoenarekin.

2.3. Proposamenen edukia

Lizitatzaileek hiru (3) gutun-azal elektroniko aurkeztuko dituzte (A, B eta C), automatikoki zenbatetsi daitezkeen esleitzeko irizpideak eta automatikoki ezin zenbatetsi daitezkeenak daudelako:

"A" gutun-azal elektronikoa (aurretiazko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak).

Izenburua. Dokumentazio orokorra

"B" gutun-azal elektronikoa (automatikoki ezin zenbatetsi daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa).

Izenburua. Dokumentazio teknikoa.

"C" gutun-azal elektronikoa automatikoki zenbatetsi daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa).

Izenburua: Proposamena

Gutun-azal hauetan beharrezko dokumentazioa sartuko da 2.5.2 atalean zehaztutako esleipen-irizpideen haztapenerako.

Lizitatzaileak aurkeztutako datuen agiri bidezko azalpenak edo justifikazioak eska ditzake BEAZek.

Lizitatzaileek agiriak aurkezten dituztenean ondorengo puntuetan ezarritako ordena errespetatuko dute, baita emandako arrazoien ondorioz aurkeztu behar ez diren ataletan ere. Lizitatzaileek dokumentazioa gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztuko dute.

Esleipeneko publizitateari eta enpresa lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenei kalterik egin gabe, kontratazio-organoek ez dute enpresa-lizitatzaileek konfidentzialtasunez emandako informaziorik hedatuko; izaera hori izango dute, bereziki, sekretu teknikoek edo merkataritzakoek eta eskaintzako isilpeko

alderdiek. Konfidentzialtasun-aitorpena Plegu hauetako 5. eranskinean dagoen ereduaren arabera egin behar da. Konfidentzialtasun-aitorpena A gutun-azalean sartuko da:

2.3.1. "A" gutun-azal elektronikoa: Agiri orokorrak.

Enpresa lizitatzaileek "A" gutun-azalean aurkeztu beharko dituzte eskatutako agiri hauek:

a) Enpresa lizitatzailea identifikatzeko datuak. Lizitatzaileak helbide elektroniko bat adieraziko du BEAZek beharrezko komunikazioak egin ditzan, komunikazio horiek BEAZen egoitza elektronikoan agertuz egindako jakinarazpen-sistemarekin tramitatu behar ez badira; adibidez, Euskadiko Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman agiri orokorrak zuzentzeko errekerimendua argitaratu dela ohartarazi edo proposamenen irekiera publikoa, etab. Helbide elektroniko hau eta lizitatzaileak bere eskaintza plataforma elektronikoan aurkeztean harremanetarako datuen pantailan adieraziko duena berdinak izan behar dira. Hori guztia, **2. eranskinaren** arabera..

b) Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, adieraziz betetzen direla BEAZekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak eta kontratazio hau arautzeko pleguetan ezarritakoak, baita pleguak onartzearen ondoriozko konpromisoak ere. Hori guztia, **2. eranskinaren** arabera..

   Erantzukizunpeko adierazpen hori bertan adierazten diren alderdien ziurtagiriaren ordezkoa da, eta adierazten du lizitatzaileak betetzen dituela BEAZekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak.

   ** Atzerriko enpresek beren gaitasuna ziurtatu beharko dute Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duen azaroaren 9ko 9/20174 Legeko 67. eta 68. artikuluetan aurreikusitako moduan.

   Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratua Espainian burutu behar badute, espainiar epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren mende jartzen direla dioen aitorpena aurkeztu beharko dute, kontratuan zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabehera guztietarako eta, dagokionean, uko egingo diote lizitatzaileari dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari.

c) Azpikontratazioa: Lizitatzaileak azpikontratatzea aurreikusiz gero,

erantzukizunpeko adierazpenean dagokion atala bete beharko du.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.

Lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpen horren ordez Europako kontratazio-agiri bakarra (**EKAB**) aurkez dezake, Batzordeko burutzapen araudiak ezarria (EB) 2016/7 2016ko urtarrilaren 5ean (DOUE L 3/16, urtarrilaren 3koa), erantzukizunpeko adierazpen osagarri batekin batera, plegu hauetako **2. ERANSKINEKO** ataletako edukiekin, 2. atalekoak izan ezik (kontratatzeko gaitasuna). EKAB hori aipatutako Araudi horretako II. Eranskinaren arabera bete beharko da, eta helbide elektroniko honetan dago eskura.

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

EKAB betetzeko lagungarria izango da estatuko administrazioren kontrataziorako kontsulta-batzordeak egindako gida, 2016ko apirilaren 6ko ebazpen bidez onartutako Gomendioan eta 2016ko apirilaren 8ko BOEn argitaratua (85. zk.). Helbide elektroniko honetan kontsultatu daiteke:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-3392

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, kide bakoitzak bere EKAB aurkeztuko du.

Dena dela, kontratazio-organoak, prozeduraren xede ona bermatzeko, esleipen-proposamena hartu aurreko edozein unetan eska dezake enpresa lizitatzaileek ziurtagiriak aurkez ditzatela kontratuaren esleipendun izateko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko.

BEAZekin kontratatzeko behar diren gaitasun eta kaudimen arloko baldintzak biltzen direla ikusteko une erabakigarria izango da proposamenak aurkezteko epearen amaiera.

SPKLren 71.1 e) artikuluan xedatutakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpenean gezurra esaten dutenek, kontratatzeko galarazpena eragingo dute.

d) Aldi baterako enpresa-elkarteek (6. Eranskina) aparteko agiri batean adierazi beharko dituzte sinatzaileen izenak eta gorabeherak, bakoitzaren parte hartzearen portzentajea eta kontratua indarrean den bitartean BEAZen

aurrean enpresa guztien ordezkaritza izango duen pertsona izendatu beharko dute. Era berean, kontratuaren esleipendunak izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa adieraziko dute.

e) Kontratuaren ezaugarrien laburpeneko K) atalean ageri den Kaudimen teknikoa eta ekonomia-finantzazkoa eta gaitasun profesionala egiaztatzeko bideak aurkeztu behar dira. (3. Eranskina edo 7. ta 8. Eranskinak)

f) SPKLko 133. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, sekretu teknikoekin edo merkataritzakoekin duten loturaren ondorioz izaera konfidentziala duten eskaintzako informazioak eta alderdiak adierazi daitezke, eta behar bezala azaldu beharko dira horren arrazoiak. Konfidentzialtasun-aitorpena 5. eranskinean dagoen ereduaren arabera egin behar da.

g) Talde bereko enpresen zerrenda.- Ezohiko balio baxuekiko eskaintzak zehazteko, sozietate talde bateko pertsona juridikoak baldin badira, enpresa lizitatzaileek taldeko sozietateen zerrenda aurkeztu beharko dute.

h) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena, 4. ERANSKINA.

BEAZek enpresa lizitatzaileei edo hautagaiei prozeduraren edozein unetan eska dakieke ziurtagiri eta egiaztagiri guztiak aurkezteko, garapen ona bermatzeko beharrezkoak izanez gero.

Kontratuaren esleipena ebatzi ondoren, esleipendunak hamar egun baliodun izango ditu ziurtagiri positiboak aurkezteko eta horrela ziurtatzeko zerga eta Gizarte Segurantza arloko betebehar guztiak beteta dituela. Horretarako, honakoak aurkeztu beharko dira:

(i) Bizkaiko Foru Aldundiaren edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren edo dagokion Zerga Administrazioaren ziurtagiriak, adieraziz pertsona fisiko edo juridiko horrek bere zerga-betebeharrak beteta dituela.

(ii) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, honen aurrean dituen betebeharrak beteta dituela adieraziz.

(iii) Behin betiko bermea: Esleipenaren zenbatekoaren ehuneko bost (%5), BEZ kanpo.

2.3.1.1. Aldi baterako enpresa-elkarteak

Zenbait lizitatzaile edo enpresa aldi baterako elkartea eginda aurkezten badira lizitaziora, elkarte horretako kide bakoitzak ziurtatu beharko du aritzeko gaitasuna SPKLk ezartzen duenaren arabera.

Elkartea eraginkorra izan dadin BEAZen aurrean, nahikoa izango da proposamenaren idatzian sinatzen duten enpresarien izenak eta gorabeherak adieraztea, bakoitzaren parte hartzearen portzentajearen berri ematea, kontratua indarrean den bitartean BEAZen aurrean denen erabateko ordezkaritza izango duen pertsona edo erakundea izendatzea eta kontratua esleituz gero aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzea; era berean, aldi baterako enpresa-elkarte horren egoitza soziala ere adierazi beharko dute.

Enpresa-elkarteari lizitazioa esleitzen bazaio egiaztatu beharko dute BEAZen elkarte hori eskritura publikoan eratu dutela formalki, baina esleitzen ez bazaio, ez dute egiaztatu beharko.

Lizitazio honetara aldi baterako enpresa-elkartean aurkeztu diren lizitatzaileen sailkapena egiaztatzeko, kide bakoitzak bere sailkapenean adierazitako ezaugarri-pilaketa erabiliko da, SPKLTBren 69.6 artikuluan eta APKLAOeko 52.ean ezarritakoaren arabera. Sailkapenak pilatu ahal izateko, aldi baterako enpresa-elkartean aurkeztu diren lizitatzaile guztiak obretako kontratista bezala sailkatuta egon beharko dira.

2.3.1.2. Atzerriko enpresak

Espainiarrak ez diren enpresen aritzeko gaitasuna egiaztatzeko, dela Europako Batasuneko estatu kideetakoak izan dela Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioaren sinatzaileak izan, Erregistroetan eman beharko dute izena edo APKLAOko I. Eranskinean adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Era berean, SPKLn xedatuaren arabera beren nortasuna eta kaudimen teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa ziurtatu beharko dituzte.

Aurreko paragrafoan ez dauden atzerriko enpresen aritzeko gaitasuna egiaztatzeko, dagokion espainiar ordezkari diplomatikoak egindako ziurtagiria beharko da, eta hor adieraziko dira tokiko Erregistro profesionalean, komertzialean edo parekidean izena emanda daudela, edo horrelakorik ezean, kontratuaren xede den jardueren alorrean aritzen dela tokiko trafikoan.

Horrelakoetan, gainera, espainiar ordezkaritza diplomatikoaren txostena beharko da,

Merkataritzako Mundu Erakundeko kontratazio publikoari buruzko akordioaren Estatu sinatzailea dela adieraziz, edo horrela ez bada, SPKLko 68. artikuluan aipatzen den elkarrekikotasun txostena. Araupetze harmonizatuaren mendeko kontratuetan elkarrekikotasunari buruzko txostena ez da egin beharko Merkataritzako Mundu Erakundeko kontratazio publikoari buruzko akordioaren Estatu sinatzaileetako enpresekin.

Atzerriko enpresek beren eratze-agiriak gaztelerara itzulita aurkeztuko dituzte eta itzulpen hori Kanpo Gaietako Ministerioko Hizkuntzen Interpretazio Bulegoak egindakoa izango da; era berean, dagokion herrialdeko espainiar enbaxadak igorritako mezu bat ere izango da ziurtatuz bere legediaren arabera kontratatzeko eta agintzeko gaitasuna duela.

SPKLko 97. artikuluan kontratatzeko baimena duten enpresarien erkidegoko ziurtagiriak aipatzen dira eta ziurtagiri horiek esan nahiko dute gaitasuna dutela bertan ageri diren hautaketa kualitatiboko baldintzak kontuan izanez gero.

Atzerriko enpresek espainiar epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren mende jartzen direla dioen aitorpena aurkeztu beharko dute, kontratuan zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabehera guztietarako eta, dagokionean, uko egingo diote lizitatzaileari dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari.

2.3.2. "B" gutun-azal elektronikoa: Agiri teknikoak

Gutun-azal honetan sartuko dira karatulan izendatutako esleipen-irizpideak egiaztatzeko eta haztatzeko agiri guztiak, baita Pleguhonetako 2.5.2. atalean izendatutakoak ere , formulak aplikatzearen bidez ebaluatu ezin badira, SPKLko 145. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Gutun-azal honetan ezingo da egon, inondik eta inora, eskaintza ekonomikoa, ezta eskaintza ekonomiko horri buruzko agiri garrantzitsurik ere eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko agiririk ere ez.

Eskaintzak eduki konfidentzialik izango balu banakako artxibotan xehekatu beharko litzateke eta artxiboaren lehenengo hitza KONFIDENTZIALA izango da, horrelakoa balitz.

Kasua balitz, lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute azpikontratatu asmo duten kontratuaren zatia, zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila aipatuz, lana aginduko zaien azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren arabera.

Horrekin batera laburpen betearazle bat aurkeztuko da bere proposameneko zerbitzuen burutzapenari buruz. Laburpen hau gehienez ere DIN A4 neurriko HIRU (3) orrikoa izango da.

Laburpen betearazle honetan alderdirik nagusienen azalpen bat egongo da, proposamenak hobeto ebaluatzeko. Berariazko alderdi bakoitzaren azalpenean laburpen bat egin ahal izango da, eta adierazi egin beharko da, dagokionean, agiri multzoan non dagoen azaldutako alderdiaren garapen osoa.

Lizitatzaileak Zehaztapen Teknikoen Pleguan espresuki aipatzen diren dokumentu guztiak erantsi beharko ditu, eskaintzak eskatutako baldintza teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko, nahiz eta balioztatzeko ez diren erabiliko. Erreferentzia tekniko horiek "B" gutunazal elektronikoan txertatuko dira, Betearazte-laburpenarekin batera, gainerako dokumentazio teknikotik aparte.

Laburpen betearazlea B gutun-azalaren barruan aurkeztu beharko da, gainerako agiri teknikoetatik bananduta, eta agiri guztiak jarraian zehaztutako ordenan, sailkapenean eta edukiarekin egituratu beharko dira, eta beti orri teknikoko eskatutakoarekin betez:

A. METODOLOGIA:

Lanerako metodologia, zehaztapen teknikoen pleguan ezarritako helburuak lortzeko, lan egin beharreko eskualdean dauden aukerak eta indarguneak aztertuz eta identifikatuz. BIC Bizkaian kudeatu behar den azpiegitura eta inkubatutako enpresei laguntza teknikoa emateko lankidetza-lana ondo ulertzeak proiektuari emango zaion ikuspegia baldintzatuko du eta, horrenbestez, garatuko diren jarduerak, horren norainokoa eta identifikatutako helburuak horren araberakoak izango dira.

B. LANERAKO PLANA:

Zehaztutako zerbitzua burutzeko programazioaren azterketa bat jarriko du lizitatzaileak atal honetan, eta agirien bidez, modu ordenatuan eta arrazionalki azalduko du zerbitzua adierazitako epeetan burutuko duela bermatzeko behar dituen jardueren sekuentzia. Ezarritako helburuak lortzeko oso garrantzitsutzat jotzen da lan-plan zehatz eta koherentea izatea, garatuko diren zeregin eta jarduera bakoitzaren azalpen argia eginez, zehazki zerrendatuz zeregin bakoitzean egingo diren emanaldiak, mugarri nagusiak, zeregin bakoitzean parte hartzen duten arduradun eta kideak haien ezaguera, esperientzia eta egingo duten ekarpenaren arabera. Halaber, helburuak lortzeko ezarritako adierazleak ere aipatuko dira.

C. PROIEKTUKO LANTALDEA

Enpresa lizitatzaileak proiektuan parte hartuko duten kideen esperientzia eta egokitasuna aurkeztu beharko du, eta baita ere koherentzia kide bakoitzak proiektuaren fase bakoitzean egiten duen arduraldiari dagokionez, bai arduradunei zein lantaldeko gainerako kideei dagokienez.

D. ARDURALDI-MAILA

Lizitatzaileek erabiliko diren bitarteko pertsonalen zerrenda emango dute, eta baita Kontratua burutzeko izendatutako giza lantaldeen organigrama funtzional eta hierarkikoa ere.

Atzerriko langileak erabiltzea aurreikusita egonez gero, espainiar Estatuan lan egiteko baimenaren ziurtagiriak ere aurkeztuko dituzte, indarrean dauden xedapenen arabera.

Dena dela, esleipendunaren zuzendaritzak eta antolakuntzak une oro erantzun beharko die zerbitzuaren martxaren ondoriozko beharrei, BEAZek langile, arduradun edo koordinatzaile berriak esleitzeko eska dezake berariazko gaietan edota kritikoetan.

Aldi baterako enpresa-elkartea bada, argi eta garbi definituko da enpresa partaide bakoitzaren artean zereginak nola banatuta dauden.

E. SEGIMENDUA:

Proiektuko faseen garapenaren kontrol eta segimendua eta eskatutako denboran osatzeko ohiko garapena atzera lezaketen gai kritikoak ezartzea.

2.3.3. "C" gutun-azal elektronikoa: Izenburua: Proposamena

"C" gutun-azalean lizitatzailearen proposamena egongo da, eurotan, Plegu honi 1. eranskin gisa atxikitako proposamen-ereduaren arabera formulatuta. Proposamen hori lizitazioaren ondoriozko konpromisoa hartu eta ordezkatzeko adinako ahala duen pertsona batek sinatu beharko du eta data ere eraman beharko du.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, dela banaka dela ABEE gisa aurkezten bada.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkarte horretako enpresa kide guztietako ordezkariek sinatuta egon beharko da eskaintza.

Eskainitako aurrekontuaren osoko konfigurazioaren ondorioetarako, kontratistak kontuan izango du 5.2. klausulan aurreikusia, han adierazitako gastuei, portzentajeei eta gainerako alderdi ekonomikoei buruz, eta ondorioz, aurkeztutako unitateko prezioetan islatu eta sartuko ditu.

Ez dira onartuko ez-egiteak, akatsak edo ezabaketak dituzten proposamenak, horien ondorioz BEAZen arabera eskaintzarako funtsezkoa den guztia argi eta garbi ikusi ezin bada, edo obra egiteko atxikitako bitarteko pertsonal edo materialak zehazten ez baditu.

2.4. Proposamenak ireki eta aztertu

"A" eta "B" gutun-azalak, agiri orokorrak eta agiri teknikoak, hurrenez hurren, kontratazio-mahaiak irekiko ditu barnean 2023ko urtarrilaren 9an eta 13an, aztertu ahal izateko.

"A" eta "B" gutun-azaletako agiriak sailkatu eta aztertu ondoren, kontratazio-mahaia eratuko da eta ekitaldi publikoan, 2023ko urtarrilaren 23an, lizitatzaileek aurkeztutako "C" gutun-azala irekiko da, proposamen ekonomikoa daukana, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

2.5. Eskaintzen balorazioa

2.5.1. Prozeduraren berezitasunak

BEAZek kontratuaren lizitazioa egingo du eta zuzendaritza orokorrak esleituko du kontratua, aurrez BEAZen kontratazio-mahaiak proposamena eginda.

Esleipen-prozedura Sektore Publikoko Kontratuen Legeko aurreikuspenen arabera egingo da, berezitasun hauekin:

a) Kontratazio-mahaiak "A" gutun-azalean aurkeztutako agirietan akatsak edo konpondu daitezkeen ez-egiteak ikusiko balitu, zuzentzeko eskatuko dio eta, horretarako, Euskadiko sektore publikoko kontratazio-plataforman argitaratuko du, horretarako egoki iritzitako beste bitarteko batzuk erabiltzeari kalterik egin gabe (interesatutako enpresei ahoz jakinaraztea, esaterako). Agiri horiek zuzentzeko, hiru (3) egun balioduneko epea emango da, aipatutako Euskadiko Sektore Publikoko kontratazio-plataforma horretan argitaratu eta biharamunean hasita.

b) "B" gutun-azaleko agiri teknikoei dagokienez, kontratazio-mahaiak lizitatzaileei argibideak eska dakizkie aurkeztutako ziurtagiriei eta agiriei buruz edo

osagarriak aurkezteko eskatu, APKLAOko 22. artikuluko terminoetan.

Kontratazio-mahaiak egoki iritzitako txosten teknikoak eska ditzake, eta horrelakoetan behar adina motibatuta egon beharko dira kontratazio-mahaiak aztertu eta baloratzeko eta gutun-azaletako gainerako agiri guztiekin batera igorriko dira Mahai horretara; Mahai honek edo bertako edozein kidek beharrezko azalpen edota zehaztapen guztiak eska ditzake, bertako edukiei buruz.

Kontratazio-mahaiak eskaintza teknikoa eta proposamen ekonomikoak baloratuko ditu.

Lizitatzaile batek edo gehiagok ezohiko balioak edo disproportzionatuak eskainiz gero, Plegu honetako 2.5.3 atalean xedatuaren arabera jokatuko da..

Aurkeztutako proposamenak eta dagozkien txosten teknikoak ikusi ondoren, Kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko proposamena egingo du, eta Plegu honetako irizpide objektiboak ezarriz eta 2.5.2. atalean ezarritako terminoak erabiliz proposamen bakoitzari egindako balorazioak une oro adieraziko ditu.

2.5.2. Kontratua esleitzeko irizpideak

Interes publikoentzako kalitate-prezio harremanik hoberenekoproposamena zein den baloratzeko bi irizpide objektibo erabiliko dira:

(i) Balio-iritzien arabera kuantifikatutako irizpideak (100 puntu)

(ii) Atomatikoki kuantifikatutako irizpideak (100 puntu)

Bi balorazioak modu independentean egingo dira, jarraian adierazten diren irizpideen arabera.

2.5.2.1. Balio-iritzien arabera kuantifikatutako irizpideak

Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritako aurreikuspenak nahitaez bete behar dira. Ondorioz, aurreikuspen hau betetzen ez duten eskaintza-teknikoak edo beren eskaintzan baldintzak ezartzen dituztenak, atzera botako ditu kontratazio-mahaiak.

Era berean, "balorazio tekniko" irizpideak jarraian dauden azpi-irizpideak ditu eta horietako alderdi bakoitza, adierazitako gehieneko puntuazioarekin baloratuko da. Osoko baturak irizpideko gehieneko puntuazioa emango du, hau da, 30 puntu. "Balorazio teknikoa" irizpidean gutxienez 10 puntu lortzen ez dituen eskaintza oro

atzera botako da.

Alderdi tekniko hauek baloratuko dira:

1. METODOLOGIA (20 puntu)

   B gutun-azalean eskatutako dokumentazioan oinarrituta gehienez 20 puntu arte balioztatuko da aurkeztutako metodologiaren egokitzapena eta proposamenaren koherentzia orokorra. BIC Bizkaian kudeatu behar den azpiegitura eta inkubatutako enpresei laguntza teknikoa emateko lankidetza-lana ondo ulertzeak proiektuari emango zaion ikuspegia baldintzatuko du eta, horrenbestez, garatuko diren jarduerak, horren norainokoa eta identifikatutako helburuak horren araberakoak izango dira.

2. LANAREN PLANIFIKAZIOA (20 puntu)

   Gehienez 20 puntu arte balioztatuko da edukiaren planifikazioa eta lehiatzaileak proposatutako lan-programaren xehetasun maila. Ezarritako helburuak lortzeko oso garrantzitsutzat jotzen da lan-plan zehatz eta koherentea izatea, garatuko diren zeregin eta jarduera bakoitzaren azalpen argia eginez, zehazki zerrendatuz zeregin bakoitzean egingo diren emanaldiak, mugarri nagusiak, zeregin bakoitzean parte hartzen duten arduradun eta kideak haien ezaguera, esperientzia eta egingo duten ekarpenaren arabera. Halaber, helburuak lortzeko ezarritako adierazleak ere aipatuko dira.

3. PROIEKTUKO LANTALDEA (40 puntu)

   Gehienez 40 punturekin balioztatuko da proiektu honetan izendatutako lantaldearen kualifikazioa. Kontuan hartuko dira lantaldearen esperientzia eta ezaguera orokorrak eta lantaldeko kide bakoitzak antzeko proiektuetan izandako esperientzia berezia eta aurkeztutako lantaldearen koherentzia. Berebiziko garrantzia emango zaio lantaldeko kideek metal-mekanikoen fabrikazio espazioen proiektuetan izandako esperientziari eta manufaktura eta fabrikazio aurreratuaren arloarekin zerikusia duten teknologia berriei buruzko berariazko ezagutzari.

   Era berean, positiboki baloratuko da fabrikazio eta manufaktura aurreratuko arloetan ekintzailetza dinamizatzeko programetan parte hartzea eta aldez aurretik esperientzia izatea.

4. ARDURALDI-MAILA (10 puntu)

   Gehienez ere 10 punturekin balioztatuko dira profil bakoitzean proiektuari esleitutako arduraldi-orduak eta BIC Bizkaian dauden enpresei egunero arreta emateko proposatutako jardunaldia

5. SEGIMENDUA (10 puntu)

   Gehienez ere hamar 10 punturekin balioztatuko dira proiektuaren jarraipena egiteko erabiltzen diren metodologia eta tresnak, bai ikuspuntu teknikotik bai ekonomikotik, adierazitako helburuak adierazitako epe eta kostuetan lortzen direla bermatzeko, baita arriskuen kudeaketa egokia bermatzeko eta lantegia bera dinamizatzea sustatuko duten ekimen berriak proposatzeko ere.

Beren ebaluazio teknikoan adierazitako gutxieneko 50 puntuko puntuazioa gainditu ez duten proposamenak zuzenean ebaluazio ekonomikotik kanpo geratuko dira, proposamen ekonomiko hori kontratazioaren xedea behar bezala ezagutu gabe egin dela esan nahiko baitu eta, ondorioz, modu artifizialean alda dezake beste proposamenei emandako puntuazio ekonomikoa.

"Balio-iritzien bitartez" irizpide ebaluagarria, hurrengo baremoaren arabera ebaluatuko da:

- Eskaintza gutxiegia : Eta guzti % 40 irizpidearen puntuazio maximoa.
- Eskaintza nahikoa : Eta guzti % 50 irizpidearen puntuazio maximoa.
- Eskaintza ona : Eta guzti % 75 irizpidearen puntuazio maximoa.
- Eskaintza nabarmengarria : Eta guzti % 100 irizpidearen puntuazio maximoa

2.5.2.2. Atomatikoki kuantifikatutako irizpideak: Proposamen ekonomikoa

Eskaintza ekonomikoen zenbateko ekonomikoa baloratzeko, eskaintza ekonomikorik baxuenari ehun (100) puntu emango zaizkio. Eskaintza ekonomiko guztiak Unitateko Prezio (UP) ordainketa motari dagozkion proposamenekoak izango dira eta kontratazio-organoak jada lehiaketara onartuak. Batez besteko eskaintza ekonomikoa (onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa) 95 punturekin baloratuko da.

- Preziorik baxuenarekin onartutako eskaintza (OFMB) 100 puntu
- Onartutako eskaintzen batez besteko prezioa (PMOF) 95 puntu

Ondorio hauetarako, "eskaintzarik ekonomikoena" izango da aurkeztutako eskaintzarik baxuena, 2.8.3 atalean ezarritako irizpideak ezarri ondoren ezohiko balioak edo desproportzionatuak sartu izanaren ondoriozkoa ez dela sumatu ondoren.

Eskaintzarik ekonomikoenaren eta batez besteko eskaintzaren artean dauden eskaintza ekonomikoak, bi balioen arteko interpolazio linealaren bidez lortutako puntuazioarekin baloratuko dira, formula hau aplikatuz:

VOFBi = 100 – (POFBi-POFMB)/(PMOF - POFMB)*5,

Hau da:

VOFBi i eskaintzaren puntuazioa, onartutako eskaintzen batez besteko prezioa baino prezio baxuagoarekin.

POFBi, i eskaintzaren prezioa, onartutako eskaintzen batez besteko prezioa baino prezio baxuagoarekin.

POFMB onartutako preziorik baxueneko eskaintzaren prezioa.

Aurkeztutako eskaintzen puntuazioa, PMOF (POFSi) baino gehiagoko zenbatekoekin, formula hau ezarriz baloratuko da:

VOFSi = 95 – (POFSi - PMOF)/PMOF*95,

Hau da:

VOFBi i eskaintzaren puntuazioa, onartutako eskaintzen batez besteko prezioa baino prezio altuagoa bada.

POFSi i eskaintzaren prezioa, onartutako eskaintzen batez besteko prezioa baino prezio altuagoa bada.

Atal honetako puntuazioa bigarren hamartarrean biribiltzen da.

Mahaiak eskaintza ekonomikoaz gain, eskaintza teknikoarekin duen koherentzia aztertuko du.

2.5.3. Eskaintza ezohiko baxuak

Eskaintza batean balio ezohiko baxuak sartu direlako ezingo dela bete ikusteko, irizpide hauek ezarriko dira:

- Lizitatzaile bakarra bada, egindako eskaintza lizitazioko gehienezko aurrekontua baino %20 gutxiago edo txikiagoa bada.
- Lizitatzaileak bi badira, beste eskaintza baino %15 gutxiago edo txikiagoa dena.

- Lizitatzaileak hiru edo gehiago badira, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino %10 gutxiago edo txikiagoa dena.

Eskaintzen izaera ezohiko baxua baloratzeko, Kontratazio-mahaiak enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko harremana kontuan izan dezake.

Eskaintza ekonomiko bat ezohikoa dela uste izanez gero, prestazioarekin alderatuz gero zenbateko baxua duelako, Kontratazio-mahaiak behar adina informazio ez duela uste badu, beharrezko informazio guztia eskatuko du prezioen edo kostuen maila baxua justifikatzeko eta arrazoiz eta zehatz desglosatzeko; beste edozein parametro ere eska dezake, horren arabera definitu bada eskaintzaren ezohikotasuna. Horretarako, ondorio honetarako egoki iritzitako informazioa eta agiriak aurkeztu beharko dira, eta horrela erabaki ahal izango da eskaintza egiaz ezohiko baxua den prestazioarekin alderatuz gero eta horregatik atzera bota behar den edo, aitzitik, eskaintza hori ez den ezohiko baxua eta ondorioz, obra esleitzeko kontuan izan behar den. Horretarako, BEAZek lizitatzaileari eskatuko dizkio, idatziz, egoki iritzitako zehaztapen guztiak, eskaintzako prezioen edo kostuen maila baxua zehazteko balio duten baldintzei buruz. Dagokion zerbitzuren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da prozeduran. Lizitatzaileak gehienez ere hamar (10) egun baliodun izango ditu, eskaria jasotzen duen datatik kontatzen hasita, bere justifikazioak idatziz aurkezteko.

Epe hori igaro ondoren Kontratazio-mahaiak justifikazio horiek jaso ez baditu, proposamena ezingo dela bete usteko du eta, ondorioz, egin duen enpresa hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da. Aldiz, epearen barruan jasoko balira justifikazio horiek, Kontratazio-mahaiak aztertuko ditu agiriak eta erabaki egingo du eskaintza onartzen duen edo ez. Eskaintza onartuz gero, kontratuaren esleipenaren inguruko guztia ebazteko gai dela esan nahiko du, ondorio guztietarako.

Dena dela, kontratazio-organoek eskaintzak atzera botako dituzte ezohiko baxuak direla egiaztatzen badute azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumen, gizarte edo lan arloko nazio edo nazioarteko betebeharrak betetzen ez dituztelako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKLko 201. artikuluan ezarritakoa beteaz.

Lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua behar bezala ez dagoela azalduta erabakiko da, azalpena ez bada erabatekoa edo ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik ezegokiak diren praktiketan edo hipotesietan oinarritzen bada.

Kontratazio-mahaiak justifikazioak onartzen baditu, beren eskaintzak onartu zaizkien

lizitatzaile guztien eskaintza ekonomikoak ebaluatuko dira (beren zenbateko baxuaren ondorioz ezohikotzat jotakoak eta jo gabeak) 2.7.2. atalean deskribatu bezala.

Talde bat bereko enpresek proposamen desberdinak aurkezten badituzte kontratu baten esleipenean banaka (bakarrik edo aldi baterako enpresa-elkartean) agertzeko, taldeko baxuena hartuko da kontuan erreferentziako baja ezartzeko, eta taldeko gainerako enpresek formulatutako eskaintzekiko ezarritako prozeduraren ondoriozko eraginak ezarriko dira.

Talde bereko enpresak esatean, Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluko kasuren batean daudenez ari gara.

2.5.4. Eskaintzen sailkapena eta esleipen-proposamena

Plegu honetako 2.5.2. klausulan ezarritako esleipen-irizpideen arabera baloratuko dira eskaintzak eta behin hori egindakoan, kontratazio-mahaiak handienetik txikienera sailkatuko ditu, eta ondoren kontratazio-organoari (zuzendari orokorrari) bidaliko dio esleipen-proposamena, kalitate-prezio harremanik onena duen eskaintzaren alde.

Lizitatzaile bi edo gehiagoren arteko berdintasuna egonez gero, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspegitik nahiago izango da kaudimen teknikoa kreditatzean bere plantillan ezgaitasunarekiko langile portzentaje handiena duen enpresak aurkeztutako proposamena, eta berdinketa egonez gero, plantillan ezgaitasunarekiko langile finko gehien duenak izango du lehentasuna.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du esleitzeko proposatutako enpresa lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen, eta ez du BEAZekin horrelakorik hartuko, kontratua formalizatzen ez den bitartean.

Kontratua esleitu aurretik, BEAZen kontratazio-organoak kontratua egiteari uko egin dakioke, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoien ondorioz. Era berean, lizitazioa hutsik aitortu dezake, plegu honetan dauden esleipen-irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik edo proposamenik aurkeztu ez bada.

2.6. Kontratuaren esleipena eta jakinarazpena

Aurreko klausuletan aurreikusitako etapak eta zedarriak gainditzean, SPKLko 145. artikuluan adierazitakoaren arabera kalitate-prezio harremanik hobereneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio BEAZeko kontratazio-organoak errekerimendua jasotzen duen biharamunetik hasi eta hamar egun balioduneko epean

agiri hauek aurkez ditzala:

- Behin betiko bermea eratu izana, 3.1 klausulan aurreikusitakoaren arabera.
- Aldi baterako enpresen-elkartea eratu izanaren eskritura publikoa eta bere IFZ, forma horretan lizitatu badute.
- Foru ogasunek edota dagokion Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egindako ziurtagiri positiboa, bere zerga betebeharrak betetzen dituela adieraziz, eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak ere betetzen dituela dioen ziurtagiri positiboa.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 71.1 artikuluan kontratatzea galarazten duten zergatien zerrenda dago, eta horrelakorik ez duela dioen berariazko aitorpena.
- Kontratatzeko duen gaitasuna ziurtatzen duen beste agiri oro edo kontratua burutu dadin eskainiko edo atxikiko dituela hitza emandako bitartekoak eskura jarri, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 76.2 artikuluaren arabera.

Errekerimendua aipatutako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela esan nahiko du. Horrelakoetan, agiri berdinak eta epe berdinean, eskatuko zaizkio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera.

BEAZeko esleipen-organoak agiria jaso ondorengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua, agiriak erabat zuzen baldin badaude.

Esleipen-akordioa motibatua izango da, lizitatzaileei jakinaraziko zaie, Euskadiko Sektore Publikoko plataforman argitaratuko da eta formalizatzeko epea adieraziko da.

Kontratuaren formalizazioaren publizitatea.- Kontratuaren formalizazioa argitaratu egingo da, dagokion kontratuarekin batera, Euskadiko Sektore Publikoko Plataforman kontratua perfekzionatu eta gehienez ere hamabost eguneko epean.

2.7. Lizitazioko agiri teknikoen eskuragarritasuna

Esleipenik lortu ez duten lizitatzaileen agiriak beren esku egongo dira dagozkien errekurtsoak jartzeko epeak igarotakoan. Dena dela, esleipena irmo egiten denetik hiru hilabeteko epea igarotakoan, lizitatzaileek erretiratu ez dituzten agiriak suntsitzea erabaki dezake BEAZek, eta hori frogatzeko ziurtagiria gordeko da.

2.8. Epeak

Aurkako berariazko adierazpenik ezean, plegu honetan dauden epeak egun naturalei buruzkoak direla ulertuko da.

3. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

3.1. Behin betiko bermea

Esleipendunak behin betiko berme bat eratu eta BEAZen aurkeztu beharko du, kontratua formalizatu aurretik, 3.1 klausulan hitzartutako epeetan eta Plegu honetako eranskinean aurreikusitako ereduaren arabera; berme horrek esleipen-aurrekontuaren ehuneko bostari (%5) dagokion zenbatekoa izango du, BEZik gabe, eta BEAZen esku jarriko du.

Enpresa esleipendunaren proposamena balio ezohiko baxuak sartzearen ondorioz bete ezin den presuntzio batean egon bada hasieran, enpresa horri behin betiko berme bat eskatuko zaio eta esleipenaren aurrekontuaren ehuneko hogeikoa (%20) izan beharko da.

Behin betiko bermeak SPKLko 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die.

Kontratua aldatzearen ondorioz bertako prezioa aldatuko balitz, bermea berregokitu egingo da 15 egun naturaleko epean, enpresariari aldaketa-akordioa jakinarazten zaion datatik kontatzen hasita, aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezioarekin dagokion proportzioa gorde dezan.

Zigorrak edo kalte-ordainak efektibo egiten diren datatik kontatzen hasi eta epe berdinean ordezkatu edo zabaldu beharko du esleipendunak bermea, dagokion zenbatekoan; hala egiten ez badu, indargabetzeko zergatia izango da.

3.2. Kontratua formalizatu

Kontratua formalizatzen denean perfekzionatuko da.

Kontratua formalizatzeko, hamabost egun balioduneko epean igaroko dira lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren berri ematen zaienetik, SPKLko 151 artikuluan aurreikusitako forman.

Kontratua formalizatzearekin batera, esleipendunak Plegu honekin eta bere eranskin

guztiekin eta preskripzio teknikoenekin ados dagoela sinatuko du. Agiri hauek guztiek eta esleitutako eskaintzen ezaugarriek kontratu-izaera izango dute, baina kontraesanen kasuan, Plegu honetan ezarritakoa izango da nagusi.

Kontratua agiri pribatuan formalizatuko da. Eskritura publikoa egingo da aldeetako batek hala eskatuz gero eta eskatzaileren kargu eta kontu izango dira hori egitearen ondoriozko gastu guztiak.

4. BEAZ ETA KONTRATISTAREN ARTEKO HARREMANAK

Kontratistak edozein unetan eman beharko du BEAZek beharrezkotzat jotako informazio oro kontratuaren burutzapenari buruz.

Kontratistari egindako informazio-eskariek ez dute esan nahiko BEAZek kontratuaren burutzapenean esku hartzen duenik, eta ez du esan nahiko, halaber, kontratistaren erantzukizunean honek parte hartzen duenik ere.

Kontratista da berari dagokion zeregina betetzearen erantzule bakarra, kontratuko betebeharrak betetzeari dagokionez.

5. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

5.1. Kontratistari ordaintzea

Kontratistak ziurtatutako zerbitzuaren zatiak ordaintzeko eskubidea izango du, Plegu honetan adierazitako terminoetan. Ondorioztatutako zenbatekoari kenduko zaizkio, dagokionean, kalitate- edo planifikazio-baldintzak ez betetzeagatiko zigorrak, 8. klausulan daudenak.

Faktura guztiak BEAZen jasotzen direnetik 30 eguneko epean ordainduko dira.

Fakturaren bat epe hori baino geroago ordainduko balitz, Kontratistak ondorengo hamar egunetan eska dezake atzerapen egunengatiko legezko interesa.

BEAZek kontratistari egin beharreko ordainketatik kendu dezake, hirugarrenen erreklamazioen ondorioz egin beharreko ordainketetarako behar den kopurua; erreklamazio horiek kontratistak zor duen kopururen batengatik badira; plegu honetan xedatutakoaren arabera (zigorrak, kalteen erreklamazioak, etab.).

Amaierako fakturarekin batera, kontratistak erantzukizunpeko/zinpeko adierazpena aurkeztu beharko du, legez edo kontratu bidez eska dakizkiokeen konpromiso eta baldintza guztiak bete dituela adieraziz, eta baldintza partikularren plegu honetako 5.4 klausulan jasotako baldintza horien zerrenda ere bai. Adierazpen honekin batera

kontratuaren arduradunari buruzko txostena aurkeztuko da, adierazitakoa egiaz betetzen dela aztertuko da txosten horretan, kontratuz ezarritako gainerako baldintza guztiak betetzeaz gain.

Kobrantza eskubidea lagatzeko edo endosatzeko, aurrez BEAZi jakinarazi beharko zaio idatziz. BEAZek arrazoia hartzeari uko egin dakioke eta, ondorioz, lagapenak edo endosoak onartzeari uko egin, laga edo endosatu behar diren zenbatekoak enbargatu edo pignoratu badira edo ez eskuratzeko beste antzeko egoeraren batean badaude, edo kontratu honen ondoriozko beste zigor edo jazoeren mende badaude.

5.2. Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Zerbitzuaren prezioan sartuta daude zerbitzuaren zuzeneko edo zeharkako kostu guztietan sartutako edo sartu daitezkeen kontzeptuak, hala nola, soldatak, gizarte-onurak, dietak, garraioa, biltegiratzea, gizarte-kargak, makinak, tresnak eta ekipamenduak, erregaiak, aseguruak, materialen finantzazioa eta, dagokionean, mota guztietako zergak eta kargak eta, oro har, preskripzio teknikoen pleguan islatutako oro.

Kontratuaren prezioaren zenbatekoan sartuta egongo dira gastu hauek, nahiz eta ondorengo zerrenda ez izan mugatzailea, baizik eta adierazpen hutsa:

- Kontratuaren edo zerbitzua egitearen ondoriozko gastuak eta zergak, arielak edo tasak.
- Aurreikusitakoak baino baliabide, ekipamendu eta bitarteko gehiago sartzearen ondoriozko kostu handiagoak.
- Gastu orokor guztiak, enpresakoak eta kontratistaren onura.
- Oro har, lizitazioa arautzen duten Pleguetan sartutako baldintzak betetzeko behar diren zerbitzuak burutzeko beharrezko gastuak, nahiz eta Proiektuaren Aurrekontuen agirian zuzenean islatuta ez egon.

5.3. Prezioen berrikuspena

Kontratuko prezioa ez dago prezioen berrikuspenaren mende.

5.4. Langileak eta lan, gizarte eta ingurumen arloko betebeharrak

Kontratua betetzeko legezko, arauzko eta ohiko indarrean dauden xedapenak bete behar dira, baita lan-arloan, Gizarte Segurantza arloan eta laneko segurtasun eta

osasun arloan ezarri daitezkeenen mende ere.

Esleitutako lana egiteko erabiliko dituen langileei dagokienez, kontratistak lan-arloan indarrean dagoen araudia beteko du, Gizarte Segurantza arlokoa, ezgaituak gizarteratzeko eta laneko arriskuei aurrea hartzekoa eta, azkenengo hauei dagokienez, gizarte trebakuntzakoa, eta hitza emango du azpikontratatutako enpresek -horrelakorik balego- lan-arloan indarrean dagoen legedia beteko dutela beren langileekin. Kontratista derrigortuta dago bere lana, dela bere enpresan dela azpikontratatuetan -horrelakorik balego- baldintza duinetan egitera, eta langileei beren sektoreko hitzarmena ezarriko zaie, batez ere (eta beharrezkoa izanez gero) langileen subrogazioari dagokionez.

Dena dela, kontratista-esleipendunak BEAZi kalte ordainak emango dizkio, hemen esleitutako baldintza ez betetzeagatik zerbait ordaindu behar izanez gero, nahiz eta hori ebazpen judizial edo administratibo bidez etorri.

Burutzeko baldintza bereziak ondokoak izango dira:

1.- Araudia bete.- Kontratistak, kontratua burutzean, ingurumen, gizarte eta lan arloan ezarri daitezkeen betebeharrak beteko ditu, betebehar horiek Europar Batasuneko Zuzenbidean, Zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo nazioarteko ingurumen, gizarte eta lan arloko zuzenbideko xedapenetan ezarri badira eta Estatuarentzat lotesleak badira. Era berean, araudi hori ezartzeko dagokion erantzukizunpeko adierazpena egingo du eskaintza egitean, Erantzukizunpeko adierazpenari buruzko **2. ERANSKINEAN** horri buruz dagoena kontuan hartuz.

2.- Laneko oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta LANEko funtsezko konbentzioak betetzeko betebeharra.- Kontratistak beregain hartzen du laneko oinarrizko eskubideak errespetatzeko betebeharra ekoizpen-kate osoan eta LANEko funtsezko Hitzarmenak betetzekoa ere bai, batez ere ondorengo hauek, Erantzukizunpeko Adierazpeneko 2. ERANSKINEAN aipatutakoaren arabera.

- 29. eta 105. Hitzarmenak, behartutako lana kentzeari buruzkoak.
- 87. eta 98. Hitzarmenak, sindikatzeko, elkartzeko eta negoziazio kolektiborako askatasunari buruzkoak.
- 100. Hitzarmena, balio berdineko lanean gizonezkoen eta emakumezkoen lanak ordainsari berdina izateari buruzkoa.
- 111. Hitzarmena, arraza, larru-kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri

edo gizarte-jatorriaren araberako bereizkeriaren aurka lana aurkitzerakoan eta laneko baldintzak izaterakoan.

- 138. Hitzarmena, haurren lana eta esplotazioa kentzeari buruzkoa.
- 182. Hitzarmena, haurren lan formarik txarrenak galarazteari eta hori errotik kentzeko berehalako jarduerak egiteari buruzkoa.

3.- Legezko betebeharra du ezgaitasuna duten pertsonei lana emateko.- Kontratistak, kontratua indarrean den bitartean beregain hartzen du enpresako plantillaren %2 gutxienez ezgaitasuna dutenak izango direla 50 langile edo gehiago badira, ezgaitasunarekiko pertsonen eskubideei eta horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorreko testu bateginaren 42. artikuluaren arabera, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegile bidez onartua edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako neurri alternatiboak hartzekoa. Era berean, hitza ematen du betebehar hori beteko duela kontratuaren arduradunaren aurrean, honek eskatutakoan, kontratua indarrean den edozein unetan edo, dagokionean, azkenengo faktura igorri aurretik (Erantzukizunpeko adierazpenaren 2. ERANSKINA).

4.- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra.- Kontratistak, kontratua indarrean den bitartean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra bere egiten du Euskal Herriko emakume eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera. Era berean, Berdintasun Plana eskura duela frogatzeko hitza ematen du, hori edukitzeko legezko (250 langile baino gehiago) edo hitzarmenezko betebeharra balu, eta hala ziurtatuko du kontratuaren arduradunaren aurrean, honek eskatutakoan, kontratua indarrean den edozein unetan edo, dagokionean, azkenengo faktura igorri aurretik (Erantzukizunpeko adierazpenaren 2. ERANSKINA).

5.- Familiako eta laneko bizitza uztartzea sustatu. Kontratua burutzean, enpresa kontratistak edo azpikontratatuak neurriak hartuko ditu kontratu hori burutu behar duten pertsonen bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartu ahal izateko.

6.- Estereotipo sexistak saihesteko betebeharra.- Kontratua burutzearen ondorioz sortuko diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresak edo esleipendun erakundeak edo, dagokionean, azpikontratatuak, hizkuntzaren erabilera ez sexista egin beharko du, emakumeak diskriminatzen dituen irudiak saihestu, estereotipo sexistak ere bai eta berdintasun balioekiko irudia sustatu, presentzia orekatua, erantzunkidetasuna eta rolen eta genero-identitateen pluraltasuna.

Aipatutako agiri guztiak kontratuaren arduradunak aztertu beharko ditu erabili eta hedatu aurretik eta kontratazio-organoak izendatuko du pertsona hori.

7.- Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa. Lizitatzaileek adierazi egin beharko dute esleipendun gertatuz gero kontratuaren xede den jarduera egiteko langileei zer hitzarmen kolektibo ezarriko zaien. Era berean, kontratua esleitu ondoren kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei ezarriko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatutako informazio guztia eskaintzeko betebeharra izango du (**2. ERANSKINA**, Erantzukizunpeko adierazpena).

8.- Esleipendun enpresak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei ezarriko zaiela adierazitako hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipenaren ebazpenean sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Zentzu honetan, eskaintza aurkezteak lizitatzaileentzat esan nahi du borondatez onartzen dutela lizitazio, esleipen eta burutzapen prozesuen ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea, bukaerara arte.

9.- Hitzarmenean adierazitako soldata ordaintzeko betebeharra.- Kontratistak kontratua burutzen ari den bitartean ordainduko dien soldata langileei dagokien kategoria profesionalaren arabera ezarri daitekeen hitzarmen kolektiboan jasotakoa izango da, eta soldata hori ezingo da izan, inondik eta inora, hura baino baxuagoa (**2. ERANSKINA,** Erantzukizunpeko adierazpena).

10.- Burutzeko baldintza bereziak, hizkuntza arloan.- Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen otsailaren 17ko 22/2009 Foru Dekretuko 16.3 artikuluan adierazitakoa beteaz, ikur, ohar, adierazle eta nota publiko guztiak euskaraz eta gazteleraz egon beharko dira.

11.- Borondatez onartu lizitazio, esleipen eta burutzapen prozesuen ondoriozko datu guztiei **gardentasun instituzionala ematea,** formalizatu arte.

5.4 atalean zerrendatuta dauden burutzeko baldintza bereziak betetzearen segimendua.

BEAZi dagokionez.- Kontratuaren ardura duen pertsonak burutzeko baldintza berezi horiek betetzen diren ikusteko jarraipena egingo du eta kontratistari kontratua indarrean den edozein unetan eskatu ahal izango dizkio dagozkion agiriak edo egoki

iritzitako gainerakoak, kontratua betetzen ari dela kontrolatu eta ebaluatzeko gaitasuna erabiliz, era berean, jarraipen-bilerak eska ditzake edo ebaluazioko aldiroko txostenak. Bestalde, kontratuaren ardura duen pertsonak kontratazio-organoari jakinaraziko dizkio kontratuan aurreikusitako betebeharren balizko ez betetzeak, eta dagokionean, zigorrak jartzeko prozedura edo kontratua etetekoa has dadila proposatuko du.

Kontratistari dagokionez.- Kontratistak betebeharra du kontratuaren arduradunaren eskura izateko eta berak eskatutako informazioa eta agiriak emateko, baldintza bereziak betetzen direla ziurtatu nahiko balu; baldintzok administrazio-klausula berezien pleguko karatularen 6.4 atalean eta "Beste zehaztapenak" atalean zerrendatuta daude. Era berean, gauza bera egin dezake erantzukizunpeko adierazpenean hartutako konpromisoekin.

5.4 atalean zerrendatuta dauden burutzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

Kontratazio-organoak enpresa kontratistari zigorra jar dakioke, burutzeko baldintza berezi horiek ez betetzeagatik. Zigorraren zenbatekoa kontratuko prezioaren %4 izango da, non eta kontratazio-organoak motibazioz ez duen uste izaten ez-betetzea larria edo oso larria dela; horrelakoetan %7ra irits daiteke hasieran eta %10era ere bai bigarrenean. Ez-betetzeak behin eta berriro errepikatzeak kontuan izango dira larritasuna baloratzeko.

Kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik kenduko dira zigorrak, dela ordainketa osotik dela zatikako ordainketa kontzeptutik; ordainketatik kendu ezin denean, aldiz, dagokionean eratutako bermetik kenduko da.

5.5. Laneko segurtasuna eta osasuna

Enpresa esleipendunak laneko segurtasun eta osasun arloko betebeharrak bete beharko ditu, dela azaroaren 8ko lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legean ezarritakoak bai eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak, eta ezarri daitekeen gainerako xedapen oro ere bai.

Esleipendunak egin beharreko lanen ondoriozko prebentzio- eta segurtasun-neurriak betetzearen gastuak, lanak egiteko finkatuko diren prezioetan islatuko dira, bere enpresako gastu orokorren barruan.

5.6. Epeak betetzea

Kontratistak kontratua burutzeko epe osoa bete beharra dauka.

Programan ezarritako burutze-epeak ez badira betetzen edo BEAZek arrazoiz aurreikusten badu ez direla beteko, kontratistak lan-erritmoa biziagotzeko beharra dauka BEAZek hala eskatuta. Erritmoa biziagotzeak ez du esan nahi plegu hauetan finkatutako prezioa aldatuko denik eta ez du eraginik izango pleguetan aurreikusitako ebazpen-gaitasunean. Dena dela, amaierako epea betetzen ez bada, plegu hauetan aurreikusi bezala zigortuko da.

5.7. Emaitzen babes eta ustiapena

Egindako lanak, edozein fasetan, BEAZ, S.A.U.ren jabetzakoak izango dira eta izaera konfidentziala izango dute. Horrenbestez, zerbitzu-emaileak ezingo ditu beretzat erabili ezta hirugarrenei eman, kontratatutako lanen inolako datu edo informaziorik BEAZ, S.A.U.ren berariazko baimenik izan gabe eta, beraz, behartuta dago bere eskura dauden bitarteko guztiak jartzera BEAZ, S.A.U.tik jaso duen informazio eta dokumentazio guztia eta egindako lanaren emaitzen izaera konfidentzial eta isilpekoa mantentzeko.

Proiektuaren helburu diren lanak garatzen eta burutzen diren bitartean sortutako emaitzak, jabetza intelektual eta industrialaren arautegian babespean egon ala ez, BEAZen jabetzakoak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezingo du horiei buruz jabetza intelektual edo industrialaren inolako eskubiderik eskatu, nahiz eta BEAZ behartuta dagoen enpresa lizitatzailearen egiletza eta laguntza identifikatzera, dagokion unean.

Kontratistak ezingo ditu, aurrez BEAZen berariazko eta idatzizko baimenik ez badu, obren albisterik, erreportajerik, planorik, marrazkirik edo argazkirik argitaratu eta hirugarrenei argitaratzeko baimenik eman ere ez.

5.8. Datu pertsonalen babesa

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarria betez, datu pertsonalak tratatzea dakarten eta, gainera, kontratistak datu pertsonalak eskuratzen dituen kontratuak formalizatzen direnetik:

- kontratista izango da tratamenduaren arduraduna, eta datu pertsonalak eskuratu

eta/edo tratatu ahal izango ditu.

- BEAZ, S.A.U.ren kontura, kontratuaren sustatzailea (aurrerantzean, BEAZ, S.A.U.ko Zuzendaritza Kudeatzailea), datuen tratamenduaren arduraduna.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren — datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO) — 28. artikuluaren eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DBLO) 33. artikuluaren arabera. Bi alderdiek datuak babesteko araudia (DBEO eta DBLO) bete behar dutela adierazten duen adierazpena: araudi hau kontratu-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplika dakiekeen araubide juridikoa da, eta kontratistak eta BEAZ, SAUko Zuzendaritza Kudeatzaileak nahitaez bete beharrekoa; bi aldeek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudi honetan xedatzen diren betebeharrak eta hizpaketak. Halaber, bi alderdiek nahitaez bete behar dituzte klausula honetan eta gainerako baldintza-agirietan datuen babesari buruz ezarritako betebehar eta estipulazio guztiak. Bi aldeentzako datuak babesteko araudiaren mende egotearen adierazpena betearaztearen eta funtsezko betebeharraren baldintza berezia da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikuluaren ondorioetarako.

Araudian xedatutakoaren arabera, datu horiek eskuratzea ez da datuen komunikaziotzat hartuko, eta kontratistak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, BEAZ, S.A.U. enpresaren Zuzendaritza Gerenteak emandako jarraibideak bete beharko ditu, 11. eranskinean jasotakoa betetzeari kalterik egin gabe.

5.9. Beste betebehar batzuk

Kontratistak informazioa emango dio BEAZi baja edo lata bat sortzen den bakoitzean onarpena eman dezan.

Halaber, BEAZek eskatu ahalko du, justifikatuz gero, lana egokiro betetzen ez duen edozein teknikari ordeztua izan dadila, ahalmen hau betetzeak edo ez betetzeak Kontratuaren helburua egokiro betetzetik salbuetsi gabe, eta ordezkapen horrek ez du inolako kosturik ekarriko BEAZentzat.

6. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratu hau ezingo zaio hirugarren bati laga, aurrez BEAZek idatzizko baimenik ematen ez badu. Lagaz gero, hartu duen horrek plegu honetan eskatutako gaitasuna eta kaudimena ziurtatu beharko ditu, behar bezala sailkatuta egon beharko da, laga duenari baldintza hori eskatu bazaio eta ez da kontratatzea galarazten duen kausaren batean sartuta egongo.

BEAZek lagapena baimenduz gero, eskritura publikoan formalizatu beharko da eta kontratu honen arabera lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratzen da lagapen-hartzailea.

7. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin adostu dezake prestazioaren zati bat egitea, pleguetan xedatutakoaren arabera, prestazioa edo zati bat zuzenean kontratistak berak ez badu egin behar.

Baina horrek ez du esan nahiko lehia mugatu denik.

Azpikontratuak egitea baldintza hauek betetzearen mende egongo da:

a) Lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzeko asmoa duten, zenbatekoa adierazi beharko dute eta enpresa-izena edo profila, jarduera hori egingo duten azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoen arloko baldintzen erreferentzia bidez definituta.

b) Dena dela, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua esleitu ondoren, edo gehienez ere, kontratuaren xedearekin hasitakoan, azpikontratazioak egiteko asmoa duela. Zenbateko zatia azpikontratatzeko asmoa dagoen adierazi beharko da, baita azpikontratatuko denaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak zein izango diren ere, eta behar adina justifikatu beharko da honek kontratuaren xedea burutzeko duen gaitasuna, dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak adierazi beharko dira, baita esperientzia ere eta SPKLko 71. artikuluaren arabera kontratatzeko galarazpenik ez duela ziurtatu beharko da.

   Kontratista nagusiak kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio idatziz

kontratu nagusia burutzerakoan informazio honen inguruan egondako aldaketa oro eta azpikontratatu berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman beharko du.

Azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia balu azpikontratistak, gorabehera honen berri ematea nahikoa izango da, bere gaitasuna ziurtatzeko.

Azpikontratistaren gaitasunaren ziurtapena azpikontratua sinatu eta berehala egin daiteke, premiazko egoera bat artatzeko beharrezkoa bada edo premiazko neurriak hartu behar badira eta horrela behar adina justifikatu.

Eskaintzan adierazitakora egokitzen ez diren azpikontratuak, bertan izenarekin adierazitakoak ez diren enpresari batzuekin egin direlako edo bertan adierazitakoak ez diren prestazioen zati batzuei buruz direlako, jakinarazpena egin eta atal honetako b) hizkian adierazitako egiaztagiriak eman eta hogei egun igaro arte ezingo dira egin, non eta aurrez ez den berariazko baimena eman eta BEAZek ez duen epe horretan horren aurka egin. Erregimen hau bera ezarriko da, azpikontratistak eskaintzan identifikatu izan balira beren profil profesionalaren azalpenaren bidez.

Kontratistaren erantzukizunpean, azpikontratuak hogei eguneko epea igarotzeko beharrik gabe ondorioztatu ahal izango dira, premiazko egoera bat artatzeko beharrezkoak badira edo premiazko neurriak hartu behar badira; horrela behar adina justifikatzen dira.

Azpikontratatzeko baldintzak ez badira betetzen, edo azpikontratatuaren gaitasuna ez bada ziurtatzen, ondorio hauetakoren bat izango da:

- Kontratistari azpikontratatutako zenbatekoaren 100eko 50 arteko zigorra jar dakioke.
- Kontratua eten daiteke, kontratuko betebehar nagusia betetzen ez bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dute izango betebeharra, beraz, hau izango da kontratua burutzearen erantzule nagusia BEAZen aurrean, administrazio-klausula partikularretako pleguen arabera eta kontratuko terminoen arabera, 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak betetzea barne.

Kontratua burutzeko baldintza berezi guztiak eskatuko zaizkie azpikontratistei ere, kontratua burutzean.

BEAZek egindako azpikontratuen berri izateak edo baimena emateak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

Kontratistak ezingo ditu inondik eta inora ere kontratuaren zati bat egiteko kontratatu, antolamendu juridikoaren arabera edo 71. artikuluko kasuren batean egoteagatik kontratatzeko ezgaitutako pertsonak.

Kontratistak langileen ordezkariei eman beharko die azpikontratazioaren berri, laneko legediaren arabera.

Azpikontratistek ez dute BEAZen aurrean zuzeneko eraginik izango, kontratistak hartu baititu erantzukizunak kontratu nagusia burutzeko eta azpikontratatzeko.

Esleipendunak eta azpikontratistak egin beharreko tramiteak:

Esleipendunak berariaz ezarriko du lagapen hartzailearekin edo azpikontratatuarekin egingo duen kontratuan azkenengo honek bi aldeak lotzen dituen kontratuzko agirian dauden baldintza guztiak betetzeko betebeharra duela.

Esleipendunari ezarritako baldintza berdinetan egin beharko ditu lanak lagapen hartzaileak edo azpikontratatuak.

Esleipenduna izango da esleitutako lanak osorik egitearen erantzule bakarra BEAZen aurrean, esleipendun honek bere hornitzaileei edo azpikontratatuei eska dakizkiekeen erantzukizunak dena delakoak izan arren.

Azpikontratistak uneoro kontratistaren kontrolpean eta gainbegiradapean arituko dira, eta kontratistak kontratu honetan hartutako betebehar guztiak ezarriko zaizkio eta betetzeko betebeharra izango du.

Kontratistak izango dira azpikontratistek beren gain hartutako betebeharren erantzule solidarioak, BEAZen berariazko baimena izan arren. Era berean, kontratistak BEAZ kaltegabe mantenduko du azpikontratista horien jardueraren ondorioz zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalteetatik.

Edozein azpikontratistak, bere ordezkariek edo enplegatuek edo langileek laneko eta sindikatu arloko betebeharrak ez badituzte betetzen edo behar bezala ez badituzte betetzen, ezingo zaizkio BEAZi egotzi eta kontratistaren aurka jo dezake, kasu hauetakoren batzuetako ondorioak egotziz gero.

Kontratistak, oro har, honakoak ziurtatzeko betebeharra izango du:

- Kontratuaren zati bat egingo duten azpikontratistak eta azpikontratatuko

diren lanaren zatiak.

- Azpikontratistak aritzeko gaitasuna betetzen duela, plegu honetako zehaztasunen arabera.
- Antolamendu juridikoaren arabera SPLKko 71. artikuluan dauden kasuen arabera kontratatzeko ezgaitutako pertsonekin azpikontratatzeko galarazpena betetzen dela.

Hori hala dela egiaztatzeko, esleipendunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Azpikontratazioa formalizatu aurreko idatzizko jakinarazpena, kontratuaren zati bat egiteko azpikontratisten zerrendarekin eta azpikontratatuko diren kontratuko zatiak.
- Azpikontratistei dagokienez, ziurtagiri hauek ere aurkeztuko dira:

1. SPKLko 71. artikuluaren arabera azpikontratistak kontratatzeko galarazpenik ez duela ziurtatu beharko da.
2. Zerga eta Gizarte Segurantza arloko betebeharrak betetzeari dagokionez, azpikontratistek dagokien Ogasunek (Estatukoak eta Foru Ogasunek) xede horretarako emandako ziurtagiriaren edo ziurtagirien bidez frogatuko dute dena betetzen dutela APKLAOko 15. artikuluan aurreikusitako irismenarekin eta forman, nahiz eta Jarduera Ekonomikoen Zergari dagokionez kontratuaren xedeari dagokion epigrafeko alta aurkeztu beharko den dagokion ekitaldiari buruz edo, azkenengo erreziboa, zerga horren matrikulan ez dela baja eman dioen erantzukizunpeko adierazpenarekin.
3. Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapena ezartzeari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuz araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako azpikontratista haiek, kontratatzeko gaitasunaren ziurtagiria ziurtatzeko prozedura baten bidez aurkeztu beharko duten bakarra indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia da, Erregistroko legelari arduradunak eginda. Hala eginez gero, aurreko puntuetan adierazitako agiririk eta inguruabarrak aurkeztu eta ziurtatu beharrik ez dute izango.

Klausula honetan aipatutako agiriak BEAZen aurkeztuko dira, azpikontratazioa formalizatu baino gutxienez hamabost egun natural lehenago. Esleipendunak

betebehar hori beteko ez balu edo ezarritako baldintzak beteko ez balira, ezingo da azpikontratazio hori egin.

Kontratista nagusiak kontratua burutzeko erantzukizun osoa hartuko du BEAZen aurrean, eta zorrotz bete beharko ditu baldintza teknikoen plegua, administrazio-baldintza partikularren plegua eta kontratuko terminoak, gizarte eta lan arloko betebeharrak betetzea barne.

Azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak:

Kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei jarraian adieraziko diren epe eta baldintzetan ordaindu beharko die hitzartutako prezioa.

Ezarritako epeak ezingo dira izan Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino handiagoak eta kontratista nagusiak ondasunak edo zerbitzuak onartu edo egiaztatzen dituen datatik hasiko da zenbatzen, legez ezarritako epeetan ezarri baditu fakturak azpikontratistak.

Ondasunak entregatzen direnetik edo zerbitzuak eskaintzen direnetik gehienez ere hogeita hamar eguneko epean egin beharko da onespena. Epe horren barruan formulatu beharko dira, baldin badaude, horrekin ados ez egotearen zergatiak. Epe horretan egiterik ez balego, ondasunak onartu direla edo eskainitako zerbitzuak egiaztatu direla esan nahiko du.

Kontratistak finkatutako epean ordaindu beharko ditu fakturak, 2. atalean aurreikusitakoaren arabera. Ordainketa atzeratuz gero, azpikontratistak atzerapenaren interesak kobratzeko eskubidea izango du, baita kobrantzako kostuengatik kalte-ordainak jasotzekoa ere merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako terminoetan.

Azpikontratistak artikulu honetan aitortutako eskubideei uko egiten badie hartu aurretik edo ondoren, uko egite hori ez da baliozkoa izango eta Kode Zibileko 1100 artikulua ezarriko da.

Azpikontratistei edo hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatu:

BEAZek egiaztatu egin ahal izango du kontratuaren esleipena duten kontratistek ordainketak behar bezala egiten ote dizkieten beren azpikontratistei edo hornitzaileei

beren zerbitzuengatik.

Hori dela eta, esleipendun kontratistek BEAZera igorri beharko dute, eskatzen zaienean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaile guztien zerrenda zehatza, hauen parte hartzea gauzatzen denean, eta ordainketa-epearekin zerikusi zuzena duten azpikontratazio- edo horniketa-baldintzak ere bai. Era berean, BEAZen eskaria bete eta ordainketak egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute zerbitzuek emandakoan SPKLko 216. artikuluan ezarritako legez ordaintzeko epeetan eta Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarrietan. Betebehar hauek burutzapeneko baldintza berezitzat hartuko dira eta ez betetzeak, antolamendu juridikoan aurreikusitako ondorioak ekartzeaz gain, zigorrak jartzea ahalbideratuko du; zigor horiek pleguetan daude xede horretarako ezarrita eta zio honen ondorioz ezarriko diren zigorren behin betiko bermeak erantzungo du.

8. ZIGORREN ERREGIMENA

Kontratu honek BEAZi ematen dion indargabetzeko gaitasuna ezartzeari kalterik egin gabe, BEAZek oro har, Plegu honetako beste toki batzuetan aurreikusitako zigorrak eta bere karatulako berezitasunak -kontratuko-ezaugarrien laburpena- dena delakoak izan arren, jarraian dauden zergati hauen ondorioz zigorrak ezartzeko eskubidea izango du:

- Epeak ez bete inondik eta inora, kontratistari egotz dakizkiokeen zergatien ondorioz.
- Eskainitako ekipamenduak ez atxiki.
- Ezarritako zigorrak edozein kasutan ezar daitezke, ezinbesteko kausagatik izan ez bada edo BEAZi zuzenean egotz dakiokeen zergatiren batengatik izan ez bada.
- Klausula honetan aurreikusitako zigorrak BEAZek konpentsatu ditzake kontratistari zor dion edozein ordainketaren bidez edo kontrata honen arabera kontratistak emandako bermeak burutzearen bidez kobratu daitezke. Aurrez kontratistari jakinarazpenik egin beharrik ez da egongo horretarako.

8.1. Osoko epea ez betetzeagatiko zigorra

Zerbitzua burutzeko hitzartutako osoko epea gaindituz gero agiri honetako hirugarren klausulan zehaztutako forman, kontratista zigortu egingo da eta hirurehun (300) euro kenduko zaizkio osoko epea betetzean izandako egun natural bakoitzeko edo egun zati bakoitzeko atzerapenagatik.

Zigor hau ondoren likidatzearen kontura ezar daiteke, kontratistari egotz dakizkiokeen zergatiengatik bete ez bada epea.

8.2. Eskainitako giza bitartekoak eta ekipamenduak atxiki ez izanagatik zigorra.

Kontratua burutzeko eskaini ziren giza bitartekoak eta ekipamenduak egiaz ez baldin badaude, eta eskura jarritako bitartekoekin eskaintzan aurreikusitako etekinak lortzerik ez balego, zigorra jarriko da, epeak ez betetzeagatik dagokiona dena delakoa izan arren.

Zigor horren zenbatekoa eskura jarri gabeko ekipamenduen sei hilabeteren parekoa izango da; eta eskura jarri diren horiek eskainitakoak baino ezaugarri tekniko eta etekin txikiagokoak badira ere gauza bera gertatuko da. Ondorio hauetarako hileko kostua lizitatzaileak berak bere proposamenean ezarritakoa izango da.

Era berean, zehapenak jarriko dira zerbitzura atxikitzen ez badira edo funtsezko postu teknikoetarako eskaintzan proposatutako pertsonak bertatik erretiratzen badira. Kontzeptu honengatiko zigorra bete gabeko egun bakoitzeko eta postuko berrehun eurokoa (200) izango da.

8.3. Zigorren muga

8. atalean zehaztutako zigorren baturak zerbitzuaren osoko zenbatekoaren %30eko muga izango du gehienez ere, Kontratu honetan hitzartutakoaren arabera BEAZi emandakoari kalterik egin gabe, kontratistak ez betetzeagatik kontratua indargabetzeko aukerari dagokionez.

9. ASEGURUAK

Esleipendunaren kargu izango dira lanen garapenean egondako kalte guztiak, beren izaera eta bolumena dena delakoa izan arren.

Esleipendunak Erantzukizun Zibileko poliza bat sinatuko du edo izango du, eta agiri orokorren A gutun-azalean egiaztatuko du.

Poliza hau indarrean mantenduko da kontratu hau indarrean den bitartean eta bermearen epea amaitu arte.

Aseguru-konpainiak Bizkaiko Foru Aldundia eta BEAZ salbuetsiko ditu mota guztietako erantzukizunetatik eta horien aurka berreskaera egiteari uko egingo dio.

Era berean, esleipendunak kontratu hau indarrean den bitartean behar adina aseguru poliza sinatu eta indarrean mantenduko ditu eta kasu guztietan egin eta mantenduko ditu i) gaixotasun- eta istripu-asegurua, dela zerbitzurako esleitutako langile guztiena dela esleipendunak kontratatutako azpikontratistaren langileena, Legearen edo sektoreko hitzarmenen edo hitzarmen partikularren arabera; ii) Erantzukizun Zibileko asegurua, derrigorrezkoa izango da lanak egiteko erabiliko diren ibilgailu guztientzat eta Erantzukizun Zibileko Legeari eta Motordun Ibilgailuen Zirkulazioko Aseguruari atxikita badaude; iii) beste edozein aseguru, langileekin zerikusia badu edo ez, kontratua indarrean dagoen bitartean ezarri daitekeen legediaren arabera eska badaiteke.

Atal hauetan aipatutako, eta esleipendunak sinatutako, aseguru-poliza guztiek estipulazio bat izan beharko dute adieraziz aseguru-konpainia bakoitzak, polizak aldatu edo eten aurretik BEAZi jakinaraziko diotela idatziz, gutxienez ere hogeita hamar (30) egun lehenago eta hau betetzen ez bada, etete edo aldaketa horrek ez du baliorik izango. (Aseguratzaileak konpromisoa beteko ez balu, esleipendunarena onar daiteke).

Aurrez aipatutako aseguru horiek guztiak, aitortutako kaudimena duten aseguru-erakundeekin egingo dira eta berraseguruen koadroa ere aurkeztu beharko da.

Aipatutako seguruei dagokienez, esleipendunak zuinketa-akta aurretik frogatu beharko du kontratazioa eta polizen eta erreziboen kopia osoa aurkeztu beharko du; era berean, BEAZek edozein unetan eska dezake esleipendunak agiri bidez froga diezaiola aseguruen kontratua, ordainketa, edukia eta indarraldia. Baldintza hau beteko ez balitz adierazitako epean eta plegu honetan ez betetzeari buruz xedatuari kalterik egin gabe, BEAZek dagozkion aseguruak kontratatu ahal izango ditu esleipendunaren kontura eta kargura, horien zenbatekoak kendu eta gastuen %8 gehitu kopuru horri, zor den ordainketaren edo kopuruaren azterketen ondorioz.

Klausula honetan ezarritako konpromisoen arabera kontratatutako aseguruek ez dute

kontratu honen arabera esleipendunari dagozkion betebeharrik eta erantzukizunik mugatuko, beraz, eskatutako mugen eta bermeen gehiegikerien edo gabezien ondorioz egotz dakizkiokeen galera edo erantzukizun guztien erantzulea izango da, aseguruko frankizien zenbatekoan.

BEAZek ez du inoiz ere frankiziek edo aseguru konpainiek ordaindu beharreko gainerako gastuen (kalteak, kalte-ordainak edo azterketak) zenbatekorik ordaindu beharko, esleipendunaren gain joango baitira.

10. KONTRATUAREN AMAIERA

10.1. Kontratua indargabetu eta behin betiko bermea itzuli

BEAZek hala erabakita kontratua indargabetzeko zergatiak dira, betetzea eskatzeari kalterik egin gabe, honakoak:

a) BEAZ eta kontratistaren arteko akordioa.

b) Kontratistak 15 egun baino gehiagoz zerbitzua uztea.

c) Preskripzio teknikoak betetzean gabezia larriak egotea. Gabezia larriak izango dira, izaera teknikoa dutenez gain, zerbitzuaren epean, iraupenean edo kalitatean aurkako eragina izan dezaketen guztiak.

d) Banako esleipenduna hiltzea edo ezgaitasuna etortzea edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoa iraungitzea, kontratistaren ondorengotzari buruzko SPKLko 98. artikuluan aurreikusiari kalterik egin gabe.

e) Edozein prozeduratan lehiaketa aitorpena edo kaudimen-gabezia aitortzea.

f) Aseguru-polizak indarrean ez mantentzea edo ez kontratatzea.

g) Hasieran hitzartutako terminoetan ezin burutzea prestazioa, 204 eta 205 artikuluen arabera kontratua aldatzerik ez dagoen kasuetan; edo 205 artikuluan ezarritako baldintzak egon eta aldaketen ondorioz (banaka edo taldean) kontratuko prezioan gorabeherak egotea, kontratuko hasierako prezio baino ehuneko 20 gehiagoan edo gutxiagoan, Balio Erantsiaren Zerga salbuetsita.

h) Administrazio-klausula partikularren pleguetan honetan aurreikusitako baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratua indargabetu egingo da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 211.1 artikuluko f) eta i) letretan xedatuaren arabera.

a) Bete gabeko kontratuzko betebeharra funtsezkoa bada kontratuaren xedea betetzeko, beti ere bi baldintza hauek gertatzen badira:

a.1) Muga hauek errespeta ditzatela: interes publikoaren, antolamendu juridikoaren eta administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez izatea.

a.2) Pleguetan edo azalpen-agirian zehatz, argi eta zalantzarik gabe zerrendatuta egon daitezela, eta ez dira onartuko klausula orokorrak.

b) Kontratua burutzen ari dela kontratistak ez ordaintzea bertan parte hartzen ari diren langileei.

c) Indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan langile hauentzat ezarritako baldintzak ez betetzea, kontratua burutzen ari dela.

i) Kontratua indargabetzeko berariazko zergatia izango da, kontratatzeko baldintzak bat-batean galtzea (kontratistaren gaitasun arloko eskakizunak eta kontratatzeko zergatiren batean sartuta ez egotea), Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritako terminoetan.

j) Kontratua indargabetzeko arrazoiak izango dira, pleguko beste atal batzuetan eta bere karatulako zehaztasunetan aurreikusitakoak.

k) Kontratuan berariaz ezarriko direnak.

Indargabetuz gero, BEAZek bere kabuz edo hirugarrenen bidez jarraitu ahal izango du zerbitzuarekin, eta baimena izango du berehalakoan kontratuaren xedearen kargu egiteko, horrelakorik gertatuz gero.

Behin betiko bermea itzuli egingo da bermearen epea igarotakoan eta bertako zuzendariaren arabera kontratua behar bezala bete bada. Kontratistari egotz dakiokeen zergatiren batengatik indargabetuz gero kontratua, ezarritako behin betiko

bermea konfiskatuko da.

10.2. Indargabetzearen ondorioak

Kontratua indargabetzearen zergatiak jakinaraztean, gehienez ere hamar (10) eguneko epean akta bat jasoko da kontratista bertan dela; baina kontratistak ez agertzea erabakiko balu, bera han ez dela jasoko da akta eta bertan islatuko dira zerbitzuaren egoera, bere izaera "hargarria" edo ez eta dagokion likidazioa. Kontratista ez bada Sozietatean izan, akta igorriko zaio.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik izan bada indargabetzea, azken ziurtagiri bidez likidatuko da eta proiektuen zuzendaritzak egingo du ziurtagiri hori, xede horretarako. Ziurtagiri horretan kontratistaren aldeko partida gisa finkatuko dira egindako zerbitzuaren zenbatekoa eta ebatzi den unera arteko "hargarria", baita kontratu honen araberako gainerakoak ere. BEAZen aldeko partidak izango dira Kontratu honetan islatutako zigorrak.

Elkarri ordaindu beharreko partidak zifratu ondoren, pilatutako kopuruan konpentsatuko dira. BEAZen alde irten daitekeen saldo hartzekoduna berehala eskatu ahal izango da, bankuko bermea exekutatzearen bidez.

BEAZi egotz dakizkiokeen zergatiengatik eten bada kontratua, honek kontratistari ordaindu beharko dio egindako zerbitzuaren kopuru "hargarria" eta, gainera, eragindako eta behar bezala frogatutako kalteak; zenbateko honen gehienezko muga kontratistaren prezioaren %4 izango da. Kontratistak eratutako bermea dagokion zenbatekoan itzuliko zaio, zerbitzuaren likidazioa egin ondoren.

10.3. Alde batek uko egitea

BEAZek bere borondatez erabaki dezake zerbitzuarekin ez jarraitzea, ondorengo ataletan hitzartuko denaren arabera. Klausula hau ez da ezarriko ezinbesteko kausagatik iraungi edo eten bada.

BEAZek edozein unetan egin diezaioke uko kontratuari aldi bakarretik, zerbitzuaren zenbateko osoaren ehuneko 10 baino gehiagoko zenbatekoaren lanak egin baditu kontratistak.

BEAZek idatziz jakinaraziko dio kontratistari Kontratua salatzeko erabakia, amaitzea aurreikusita dagoen data baino 15 egun lehenago.

Uko eginez gero, Sozietateak kontratistari ordaindu beharko dio egindako zerbitzuaren kopuru "hargarria" eta, gainera, eragindako eta behar bezala frogatutako kalteak; zenbateko honen gehienezko muga prezioaren %4 izango da. Kontratistak eratutako bermea dagokion zenbatekoan itzuliko zaio.

11. ESKUMENDUN JURISDIKZIOA

Kontratu honen burutzapenaren edo interpretazioaren ondoriozko auziak ebazteko, bi aldeak Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzio eta konpetentziapean jarriko dira, eta beste foru orori uko egingo diote.

Kontratistak ezingo ditu inondik eta inora eten eta atzeratu kontratu honen xede diren zerbitzuak, ezta horiek bertan behera utzi ere kontratu hau indargabetu edota etenez gero edozein izaera edo erakundeko erreklamazioak, aldeak edo erreserbak dituen alegazioen ondorioz, ezta erreklamazio horiek prozedura arbitralak, judizialak edo edozein motako auzibideak eragin izanaren edo ez izanaren aitzakiarekin ere.

Bilbon, 2022ko azaroaren 23an

Olatz Goitia Urquiaga
Zuzendari nagusia